

Lerro arte irakurtzen

Hizkuntza
eta Literatura
alorrerako
material
didaktikoa

Batxilergoko 1. maila

Lerro arte irakurtzen

Hizkuntza
eta Literatura
alorrerako
material
didaktikoa

Batxilergoko 1. maila



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

Aurkibidea

1.	Alboan -en aurkezpena	5
2.	Unitate didaktikoaren sarrera	7
3.	Aldez aurreko argibideak	9
4.	Unitatea lantzeko giltzarri pedagogikoak	11
	4.1. Helburu orokorra	11
	4.2. Edukiak	11
	4.3. Ebaluatzeko irizpideak eta metodoak	13
5.	Proposamen didaktikoa	19
	5.1. Komunikabideen eginkizuna globalizatutako munduan	21
	5.1.1. Komunikabideen funtzioak eta aukerak	21
	5.1.2. Komunikabideen ahalmena eta eragina	35
	5.2. Mitoak eta estereotipoak gizarte-komunikabideetan	40
	5.2.1. Estereotipoak	40
	5.2.2. Emakumearen irudia publizitatean	59
	5.2.3. Emigrazioaren irudia prentsan	78

6.	Unitate didaktikoaren ebaluazioa	99
	6.1. Ikasleentzako ebaluazio-proposamena	100
	6.2. Irakasleentzako ebaluazio-proposamena	104
7.	Bibliografia	107
8.	Sareko beste zenbait baliabide	109
9.	Eranskinak	111

1.

Alboan-en aurkezpena

Alboan Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundeak eta pertsonak elkartu diren plataforma da, eta, elkarbanatutako esperientziaz baliatuz, gizartea eraldatzea dute helburua giza garapena, bizitza duina eta justizia pertsona ororen ondare izan daitezen.

Prestakuntza alorraren bidez, Alboan-ek elkartasunaren kultura sustatzearen alde egiten du apustu.

Beraz, mundu zuzenagoa eta gizatiarragoa lortzeko, gizartearen eraldaketan parte hartuko duten 'hiritar aktibo, kritiko eta solidarioak' sortzeko konpromisoa gero eta talde eta pertsona gehiagok hartzea lagundu nahi dugu.

Horretarako, hiru eremutan egiten dugu lan:

- Hezkuntza elkartasunean.
- Borondatezko lana.
- Prestakuntza soziopolitikoak.

Alor horietako bakoitzean honakoen bidez egiten dugu lan:

1. Prestakuntza ekimenak sortuz.
2. Elkartasun-esperientziak sustatuz.
3. Elkarguneak eta gogoetarako guneak sortuz.
4. Gure hezkuntza-proposamenak zabalduz.

Gure iritziz, eta topikoetatik harantzago, hezkuntzak ahalmen handia du gizartearen eraldaketan. Beste gizarteratze-eskaeretik 'lehia' handia izan arren, eskola oraindik ere balioak transmititzeko leku garrantzitsua da. Eskolan ere sortzen da *kultura*, eta ez ezagutza-multzo gisa, baizik eta pertsonak elkarren artean harremanak dituzten moduan, sentitzeko moduan, esanahiak sortzen dituzten, zenbait balioen inguruan bizitza antolatzeke moduan. Eta eremu horretan eragin dezakegu hezitzaileok: kulturaren sorreran, *elkartasunaren kulturaren* sorreran. Elkartasunean bizi diren pertsonetatik abiatuta bakarrik hartu ahal izango ditugu mundu zuzenagoa eta gizatiarragoa lortzeko aukera emango dizkiguten neurri eraginkorrak.

Arrazoi horiengatik, **Alboan**-en garapenerako eta elkartasunerako hezkuntzaren alde egin dugu apustu gogor. Ahalegin horien barnean dago material didaktikoak egiteko proiektua, eta esku artean duzun hau da proiektu horren fruituetako bat.

Bilduma horretako unitate didaktikoak hezitzaile-talde batek egin ditu **Alboan**-en laguntzaz eta aholkulartzaz. Prozesuak –luzea bera– hainbat fase izan ditu:

- Irakasle-talde bat motibatzea eta prestatzea.
- Irakasgaien ohiko programetako gaiak aukeratzea.
- Elkartasunerako hezkuntzaren ikuspegia kontuan hartuko duten jarduerak diseinatzea: metodologia aktiboak, partaidetzakoak eta lankidetzakoak, tokiko errealitatea eta errealitate orokorra lotzen dituztenak, eta ekintzara zuzenduta daudenak.
- Jarduerak egitea, gelako esperientziarekin alderatzea.
- Ebaluazioa eta hobetzea.
- Argitaratzea.
- Erabiltzaileen ebaluazioa.

Gure lan-esperientzia eta, batez ere, gure ilusioa biltzen dituen lan hau erabilgarria, iradokitzailea eta sustagarria izatea espero dugu gure itxaropen bera duten hezitzaileentzat: *benetako elkartasunean oinarritutako munda eraikitzea posible da.*

2.

Unitate didaktikoaren sarrera

XI. mendearen hasieran hezkuntza-alorreko guztiak jakitun dira komunikazioen aroan bizi garela. Aurrerapen teknologikoa, Internet, planetako edozein lekutatik, baita espaziotik ere, bidalitako mezuen abiadura kontuan hartzen baditugu, mundializazioaz edo globalizazioaz hitz egin dezakegu. Mundua ulertzeko modua eta giza harremanak aldatu egin dira ikus-entzunezko informazio-sare berriak iritsi direnenik.

Hori, neurri handi batean, honegatik da: telebistaren nagusitasuna halako muturretaraino iritsi da, errealitatea irudiarekin nahasten baita, eta ikusleak lortzea eta ikuskizun-informazio bidez entretenitzea helburu nagusi bihurtu baitira. Oso bizkor igarotzen diren eta koherentziarik gabe metatzen diren irudi iheskorren bonbardaketak ikusleei nahaste handia sortzen die. Eta, gainera, asko aztertutako publizitate limurtzaileko teknikak harrapatuta geratzen dira ikusleak.

Hizkuntza irakasgaiak ezin du errealitate horretatik kanpo egon. Horregatik, hemen aurkezten dugun material didaktikoan, informazioa biltzetik mezuak hedatzeko fasera arteko prozesua hartzen saiatu gara, gure gizartea itxuratzen ari diren informazio-sare horiek erabiltzen dituzten tekniken erraiak atereaz. Baina unitate didaktiko honetako lanaren oinarria, batez ere, ikasleei honako hau ezagutaraztea da: komunikazioko teknologia berriek helburu ekonomikoaz gain bestelako helburuko mezuak hedatzeko ematen diguten aukera handiak. Komunikabideak tresna bihurtu daitezke ikasle bakoitzak bere pentsamenduari euts diezaión (bere inguru uniformizatuan bitxia eta deserosoa bada ere) eta jasotzen dituen iritzien eta ideien bidez aberats dezan. Horregatik, zenbait ariketa praktikoren bitartez, hartzen dituen mezuen aurrean galditzeko eta horien zergatia galdetzeko ohitura sustatuko da, eta, hartara, uste bat baino gehiago zalantzan jarriko dute. Kontua pentsamendu bakarragatik uzurtutako eta manipulaturako talde pasibo honetatik ateratzeko bideak ikertzea da eta beste mezu mota batzuk sortzea. Ulertzekoa da gizaki orori, berez, gehiago erakartzea ideia askotako gizarte libre batean parte hartzeak gizarte sinplista, indarkeriazko, aurreiritziz eta injustizia sortzen duten egiturez betetakoan parte hartzeak baino.

Laburbilduz, batez ere, komunikabideetan jartzen du arreta unitate honek, eta bere helburua ikusleak pasibotasunetik eta despertsonalizaziotik esnatzea da, gizartean pertsona kritikoak eta aktiboak eratzeko dagoen beharrari erantzun ahal izateko. Kontua ez da aurrerapen informatikoaren aurka borroka egitea, baizik eta giza garapenaren zerbitzura egon behar duten baliabide horiek erantzukizunez erabiltzeko jarraibideak eta tresnak ematea.

Lan horrek ikasleei ahalegin bat egitea eskatzen die, ohartu behar baitute kontu nagusia ez dela besteei informatzea norbera informatzea baizik; izan ere, hausnartu egin behar dute, teknikak ezagutu, ikasi eta horiek erabili. Prozesu-amaieran jarduera produktiboa da, eta jada ez du informazio-baliabideetan bakarrik arreta jartzen, komunikazio-ekintzetako igorleetan eta hartzaileetan baizik, gizakian, alegia.

Laburbilduz: helburua ez da teknologia berriekiko babes-armadura eraikitzea, ahaleginez informatzeko ilusioa berreskuratzea baizik, gizartean aktiboki parte hartu ahal izateko eta balio berrien komunikazio-kanal bihurtzeko.

3.

Aldez aurreko argibideak

Unitate didaktiko hau Hizkuntza irakasgaiaren esparruan egiteko prestatu dute egileek. Bestalde, material irekia denez eta egokitzeko aukera handiak ematen dituzenez, curriculumeko beste irakasgaietarako eta hezkuntza ez-formalean zenbait gai edo jarduera erabili daitezke.

Halaber, esan beharra dago hizkuntzari dagokionez, unitate osoan zehar emakumezkoak eta gizonzkoak berdin irudikatzeko ahalegin berezia egin dugula. Egia esan, ez dago horretarako modu bakarra, beraz, hizkuntza androzentrikoari aurre egiteko hainbat modu erabili ditugu, Emakunderen proposamenak kon-tuan hartuta:

- Generiko errealak eta izen abstraktuak erabiltzea.
- Aditz- eta izenordain-formak erabiltzea.
- Talde mistoetan, bi genero gramatikalak erabiltzea.
- Barrak fitxa, taula eta antzeko dokumentuetan baino ez erabiltzea.

Horretaz aparte, unitateak bi gai ditu eta horiek, aldi berean, hainbat azpigaitan banatuta daude. Azpigai horietako bakoitzerako jarduera-sorta bat dago. Azpigai bakoitzaren hasieran, helburuen, jardueren deskribapenaren eta behar den materialaren berri ematen zaio irakasleari eta gutxi gorabehera zenbat iraungo duen adierazten zaio. Gainera, jarduera gehienek dokumentazio osagarria dute. Dokumentazio hori erabili baino lehen irakasleei berrikustea iradokitzen diegu.

Unitate didaktikoan zehar zenbait ikono agertzen dira, eta honako alderdiei egiten diete erreferentzia:



Irakasleentzako gida



Taldeko dinamika



Jarduera



Irakasleentzako erantzunak



Banakako dinamika



Dokumentazio osagarria

4.

Unitatea lantzeko giltzarri pedagogikoak

Ondoren, unitate didaktiko honetan landu daitezkeen giltzarri pedagogikoak aipatzen dira:

- a) Unitatearen helburu didaktikoa.
- b) Edukiak: kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak.
- c) Ebaluatzeko irizpideak eta metodoak..

4.1. Helburu nagusia

Unitate didaktiko honen helburua ikasleak komunikazio-egintzetan duten funtsezko zereginaz jabetzea da. Horretarako, mezuak modu mekanikoan jaso beharrean gogoeta kritikoa egitea, eta gizartean parte-hartze aktiboa edukitzea sustatuko da, mezu berrien eta gizarteko balioen igorle bihurtzeko asmoz.

4.2. Edukiak

Kontzeptuzkoak

- Testuen kohesioa: hitzen errepikapena, anaforak, kataforak eta eremu semantiko bereko erreferentziak.
- Testuen koherentzia eta progresio tematikoa.
- Konnotazioa eta denotazioa hizkuntzan.
- Idatzizko, ahozko eta ikus-entzunezko diskurtso-moten ezaugarriak komunikazio-egoerak eta -asmoak kontuan hartuta.
- Estereotipoak: jatorria eta horiek irauteko mekanismoak.
- Komunikabideen eragina 'bestea' ulertzeko dugun moduan: emakumeak eta etorkinak.
- Irudia errealtatea berriro interpretatzeko elementu gisa.
- Kazetaritza-genero nagusien ezaugarriak eta egiturak: albistea, elkarrizketa, erreportajea, kronika eta iritzi-artikulua.

Prozedurazkoak

- Lankidetzaz-estrategiak garatzea banakako lana aberasteko.
- Hainbat informazio-iturri erabiltzea: Internet, egunkariak, telebista...
- Testuen, diskurtsoen edo irudi-segiden barne-egitura edo zatiak adierazteko trebatzea eta hori egitera ohitzea.
- Hitza giza komunikazioko tresna moduan erabiltzea.
- Argudio-testuak idaztea, ikasleen iritzia adierazteko lotura egokiak eta argudio-teknikak erabiliz.
- Iritziak hitz eginez adieraztea eta hura argudiatzea.
- Estetika zaintzea.
- Testuak edo irudiak kritikoki interpretatzeko beharrezko estrategiak.
- Limurtzea helburu duten publizitate-teknikak identifikatzea.
- Komunikabideetako hizkuntz eta ikus-mezuak deskodetzea.
- Gure ingurukoak ez bezalako pertsonekin harremanak izatea zailtzen dituzten aurreiritziak eta estereotipoak kentzea.
- Komunikabideak askotariko errealitatea ezagutzeko tresna baliagarri moduan erabiltzea.
- Zati baten edukia izenburu batean laburtzea.
- Hainbat iturri erabiltzea albisteak alderatzeko.
- Norbere iritziak hitz eginez adieraztea hiztegi zabala erabiliz.

Jarrerazkoak

- Norbere ideiak adierazteko autonomia izatea.
- Norberaren iritziak ez bezalakoak direnak errespetatzea.
- Komunikabideen bidez irudimena, sentikortasuna eta zentzu kritikoa garatzea.
- Norberak errealitatea itxuratzeko zeregin aktiboa duela jabetzea.
- 'Bestea' ulertzeko finkaturik ditugun aurreiritziak ezagutzea.
- Argudioa gainerakoekin gure ideien arrazoiak emateko jarrera dela balioestea.
- Norberaren ideien edo ulertzeko moduak ez bezalakoenganako enpatia.
- Norberaren prestakuntzan eta gizarte-ingurunean jarrera aktiboa izatea.
- Arrazoimenez kontsumitzeko behararen aurrean ardura izatea.
- Komunikabideen bidez iristen diren gizarte-injustizien aurrean sentsibilizatzea.
- Tesi desberdinak defendatzen dituzten iritzi-artikuluak irakurtzeko zaletasuna garatzea.
- Inguratzen gaituen munduan era askotako kulturak eta historiak daudela balioestea eta haiek errespetatzea.
- Aurreiritzi sexistak hautematea eta deuseztatzea.
- Gizartea aldatzeko, eragile gisa komunikabideetan parte-hartze aktiboa sustatzea.

4.3 Ebaluatzeko irizpideak eta metodoak

1. gaia. Komunikabideen eginkizuna globalizatutako munduan

1. eta 2. jarduerak

	Edukiak	Kalifikazioa	Metodoa
Kontzeptuak	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikabideen informazio-funtzioa. • Egunkarien antolaketa edo atalak. • Kazetaritza-genero nagusiak. 	<ul style="list-style-type: none"> • %30 • %30 • %40 	Bidaia-egunerokoa zuzentzea. Lanari taldeka erreparatzea.
Kontzeptuzko edukien azken kalifikazioa			
Prozedurak	<ul style="list-style-type: none"> • Internet, hiztegiak edo atlasak erabiltzea ezagutzen ez dugun lexikoa edo lekuak bilatzeko. • Albiste baten gertaera nagusia bereiztea. • Jarduerak egiteko eta dokumentazioa antolatzeko behar den materiala ekartzea. • Funtzioak edo lanak zuzen banatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • %10 • %30 • %30 • %30 	Lanari taldeka erreparatzea eta hura gauzatzea.
Prozedurazko edukien azken kalifikazioa			
Jarrerak	<ul style="list-style-type: none"> • Bidaia-egunerokoa sormenez eta originaltasunez idaztea. • Egunero komunikabideetatik jasotzen ditugun mezuekiko dugun pasibotasunaz eta gogoeta-faltaz jabetzea. • Laguntzazko eta lankidetzazko jarrera izatea ikaskideekin, ordenagailuak behar bezala erabiltzeko. • Inkesta pertsonaletan zintzotasunez eta arduraz erantzutea. 	<ul style="list-style-type: none"> • %30 • %20 • %20 • %30 	Banakako eta taldekako behaketa: <ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzaz • Koherentzia • Irekitzea • Malgutasuna Portaerak erregistratzea.
Jarrerazko edukien azken kalifikazioa			

3. jarduera

	Edukiak	Kalifikazioa	Metodoa
Kontzeptuak	<ul style="list-style-type: none"> • Albisteen egitura: izenburua, leada eta gorputza. • Albisteetako oinarritzko bost galdera: nor, zer, noiz, non eta nola. • Albisteen estilo objektiboa. • Informazio-agentzia handien informazio-monopolioa. 	<ul style="list-style-type: none"> • %25 • %25 • %25 • %25 	Eskemak zuzentzea.
Kontzeptuzko edukien azken kalifikazioa			
Prozedurak	<ul style="list-style-type: none"> • Internet, hiztegiak edo atlasak erabiltzea ezagutzen ez dugun lexikoa edo lekuak bilatzeko. • Ahozko adierazpena sustatzea. • Talde-lanetan lankidetzaz-estrategiak erabiltzea. • Pentsako mezu inplizituak kritikoki interpretatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • %25 • %25 • %25 • %25 	Talde bakoitzaren ahozko azalpenari erreparatzea.
Prozedurazko edukien azken kalifikazioa			
Jarrerak	<ul style="list-style-type: none"> • Bidaia-egunerokoa sormenez eta originaltasunez idaztea. • Eguneroko komunikabideetatik jasotzen ditugun mezuekiko dugun pasibotasunaz eta gogoeta-faltaz jabetzea. • Laguntzazko eta lankidetzazko jarrera izatea ikaskideekin, ordenagailuak behar bezala erabiltzeko. • Inkesta pertsonaletan zintzotasunez eta arduraz erantzutea. 	<ul style="list-style-type: none"> • %25 • %25 • %25 • %25 	Eztabaidara egindako ekarpenei erreparatzea.
Kontzeptuzko edukien azken kalifikazioa			

II. gaia. Mitoak eta estereotipoak komunikabideetan

4. jarduera

	Edukiak	Kalifikazioa	Metodoa
Kontzeptuak	<ul style="list-style-type: none"> Gertaeren eta iritzien arteko desberdintasunak. Estereotipoen eta aurreiritzien sorrera. 	<ul style="list-style-type: none"> %40 %60 	Galderen erantzunak zuzentzea.
Kontzeptuzko edukien azken kalifikazioa			
Prozedurak	<ul style="list-style-type: none"> Gertaera objektiboen eta iritzien arteko desberdintasunak ezagutzea. Norbere iritzia zalantzan jartzeko gaitasuna izatea. Norbere esperientziaren adibide zehatzen berri ematea taldeko gainerakoei. 	<ul style="list-style-type: none"> %40 %40 %20 	Koadernoak berrikustea.
Prozedurazko edukien azken kalifikazioa			
Jarrerak	<ul style="list-style-type: none"> Norberaren iritziaz bestelakoak direnak errespetatzea. Eztabaidetan parte hartzeko txandak errespetatzea. Norberaren aurreiritziak ezagutzeko eta agerian uzteko interesa izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> %40 %40 %20 	Eztabaidei erreparatzea eta koadernoak zuzentzea.
Jarrerazko edukien azken kalifikazioa			

5. jarduera


	Edukiak	Kalifikazioa	Método
Kontzeptuak	<ul style="list-style-type: none"> Narrazioko oinarriko elementuak: denbora, ikuspuntua, narratzailea eta lekua. Narrazioko lokailuak. Deskribapena: etopeia, prosopografia eta argazkia. 	<ul style="list-style-type: none"> %30 %30 %40 	Narrazioa zuzentzea narrazioaren ikuspuntutik.
Kontzeptuzko edukien azken kalifikazioa			
Prozedurak	<ul style="list-style-type: none"> Gure portaera baldintzatzen duten eta komunikabideek -batez ere, publizitateak- indartzen dituzten estereotipoak eta aurreiritziak aztertzea. Irudiak arduraz kontsumitzea ikus-alfabetatzearen eta zentzu kritikoaren bidez. Irudiaren estetika balioestea eta sormena izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> %35 %35 %30 	Publizitate-azterketa zuzentzea.
Prozedurazko edukien azken kalifikazioa			
Jarrerak	<ul style="list-style-type: none"> Taldearen iritzia onartzeko gaitasuna izatea, nahiz eta norberarenarekin bat ez etorri. Taldean egiteko lanetan lankidetzaz-espirtua izatea. Norbere aurreiritziak zalantzan jartzea eta aldatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> %30 %30 %40 	Talde bakoitzaren parte-hartzeari erreparatzea.
Jarrerazko edukien azken kalifikazioa			

6. jarduera

	Edukiak	Kalifikazioa	Metodoa
Kontzeptuak	<ul style="list-style-type: none"> • Estereotipoak: definizioa, jatorria, osagaiak eta eraginak. • Publizitatea: diskurtso limurtzailea. • Estilo-baliabideak publizitateko esaldietan. • Denotazioa eta konnotazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> • %30 • %30 • %20 • %20 	Proba objektiboa.
Kontzeptuzko edukien azken kalifikazioa			
Prozedurak	<ul style="list-style-type: none"> • Estereotipo sexistak hautematea eta deskodetzea. • Taldean egindako lanaren ondorioak hitz eginez adieraztea. • Adibide zehatzetan oinarritutako iruzkin argia idaztea. • Irudiak interpretatzeko metodo zehatza eta eraginkorra erabiltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • %25 • %25 • %25 • %25 	Ondorioen iruzkina egitea idatziz, eta haien inguruan hitz egitea.
Prozedurazko edukien azken kalifikazioa			
Jarrerak	<ul style="list-style-type: none"> • Estereotipo eta aurreiritzi sexistak saihestea, bai ahozko adierazpenean, bai idatzizkoan. • Publizitateko irudien estetikaren atsegina balioestea. • Emakumeei ezartzen zaizkien estereotipoak eta haiek sexu-diskriminazioan duten eragina ezagutzea. • Beste publizitate-irudiekin konparaketak egiteko gaitasuna izatea. Beste iragarkietan agertzen diren estereotipoen eta aurreiritziez jabetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • %25 • %25 • %25 • %25 	Antzemandako estereotipoak erregistratzea eta publizitate-adibideen oharrak hartzea.
Jarrerazko edukien azken kalifikazioa			

7. eta 8. jarduerak

Edukiak	Kalifikazioa	Metodoa
Kontzeptuak	<ul style="list-style-type: none"> • Albistea: izenburua eta haren estilo "neutroa". • Adjektibo murrizgarrien eta ez-murrizgarrien balioa. • Termino eta hitz batzuen konnotazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> • %40 • %30 • %30 Albisteetan konnotazioak identifikatzea.
Kontzeptuzko edukien azken kalifikazioa		
Prozedurak	<ul style="list-style-type: none"> • Etorkinei buruzko informazio estereotipatuen eta alderdikoen aurrean zentzu kritikoa izatea. • Gutxiengo etnikoei buruz prentsan agertzen diren mezu inplizituak deskodetzeko tresnak eskuratzea. • Kulturen arteko errealitateari buruzko norberaren iritzia koherentziaz argudiatzea. • Idatzizko komunikabideak egoki erabiltzea, errealitateari buruz informazioa biltzeko baliabide erabilgarriak diren heinean. • Lanak eta ardurak banatzeko gaitasuna izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> • %20 • %20 • %20 • %20 • %20 Begiratutako materialari erreparatzea eta gutxiengo etnikoak aipatzeko erabilitako terminoak idaztea.
Prozedurazko edukien azken kalifikazioa		
Jarrerak	<ul style="list-style-type: none"> • Etorkinekin elkartasuna eta enpatia sustatzea. • Talde askok gure gizartean pairatzen duten tratu diskriminatzailearen aurrean sentikortasuna sustatzea. • Aniztasuna eta kulturen arteko harremana giza aberastasunak direla balioestea. 	<ul style="list-style-type: none"> • %25 • %30 • %35 Emandako iritziei erreparatzea.
Jarrerazko edukien azken kalifikazioa.		



9. jarduera

	Edukiak	Kalifikazioa	Metodoa
Kontzeptuak	<ul style="list-style-type: none"> Argudio-testua eta haren helburua. Argudio-testuen egitura: induktiboa, deduktiboa, enkoadratua, errepikakorra, paralelistikoa... Argudio-mekanismo nagusiak: adibide frogagarriak, datu objektiboak, adituen aipuak, kontrasteak, gezurtapenak... 	<ul style="list-style-type: none"> %20 %40 %40 	Eredu jakin batean argudio-elementuak identifikatzea.
Kontzeptuzko edukien azken kalifikazioa			
Prozedurak	<ul style="list-style-type: none"> Egoera jakin baten inguruan gogoeta egitea eta norbere iritzia edukitzea. Iritzi autonomoei eusteko, arrazioen zerrenda egitea. Ondo argudiatutako iritzi-artikuluak idaztea, kohesioa ematen duten lokailu logikoak erabiliz. 	<ul style="list-style-type: none"> %35 %30 %35 	Bakarka egindako artikulua idatziz aurkeztea.
Prozedurazko edukien azken kalifikazioa			
Jarrerak	<ul style="list-style-type: none"> Etorकिन aldekoea ez den egoeraz jabetzea. Topikoak saihesteko eta orokorrean onartutako zenbait adierazpen zalantzan jartzeko gaitasuna izatea. Arazoak zenbait ikuspuntutatik aztertzea eta erantzunak proposatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> %40 %30 %30 	Artikuluaren adierazitako iritzien eta erabilitako tonuaren oharrak hartzea.
Jarrerazko edukien azken kalifikazioa.			



5.

Proposamen didaktikoa

5.1. Komunikabideen eginkizuna globalizatutako munduan

5.1.1. Komunikabideen funtzioak eta aukerak

- 1. jarduera: Bidaia bat egitera goaz*
- 2. jarduera: Banakako inkesta*

5.1.2. Komunikabideen ahalmena eta eragina

- 3. jarduera: Egunkaria irakurtzen*

5.2. Mitoak eta estereotipoak gizarte-komunikabideetan

5.2.1. Estereotipoak:

- 4. jarduera: Gertaerak eta iritziak*
- 5. jarduera: Istorioak kontatuko ditugu*

5.2.2. Emakumearen irudia publizitatean

- 6. jarduera: Emakumea eta publizitatea*

5.2.3. Emigrazioaren irudia prentsan

- 7. jarduera: Prentsa-zuzentzaileak gara*
- 8. jarduera: Galderak*
- 9. jarduera: Iritzi-artikulu bat idazten*

5.1. Komunikabideen eginkizuna globalizatutako munduan

5.1.1. Komunikabideen funtzioak eta aukerak

1. *jarduera: Bidaia bat egitera goaz*

2. *jarduera: Banakako inkesta*



Irakasleentzako gida

1. Helburuak

- Komunikabideek gure ikuspuntuan eta portaeran iritziak sortzeko duten eraginaz jabetzea.
- Komunikabideen kultur homogeneizazioaren aurrean ikasleen pentsaera-autonomia sustatzea.

2. Segida

1. *jarduera: Bidaia bat egitera goaz*

- *Deskribapena:* Teknologia berriek aberastasun kultural eta pertsonal gisa ematen dizkiguten aukerak probatuz, ikasleei Madagaskarrera alegiazko bidaia bat egitea proposatzen diegu. Horretarako, bidaiarako hasierako plana egiteko eta beren esperientzia kontatzeko egunerokorako behar dituzten datuak sarean bilatu beharko dituzte.
- *Beharrezko materiala:* Bidaiarako hasierako plana eta Internet.
- *Dinamika:* Taldeka.
- *Kalkulatutako denbora:* 50 minutuko bi saio.
- *Ikusi:* Dokumentazio osagarria.

2. jarduera: Banakako inkesta

- *Deskribapena:* Ikasleek komunikabideak –prentsa, irratia, telebista eta Internet– nola erabiltzen dituzten eta haien munduaren gure ikuspuntuan duten eraginaren inguruan hausnartzeko, ikasle bakoitzak banakako inkesta bat beteko du. Ondoren, taldeka hitz egingo da egindako galderetatik abiatuz. Hala, irakasleek taldeak gai horri buruz duen ikuspuntua ezagutuko du.
- *Beharrezko materiala:* Materialarekin batera doazen galderak.
- *Dinamika:* Banakakoa eta taldekakoa.
- *Kalkulatutako denbora:* 30 minutos.
- *Ikusi:* Taldean hitz egiteko galderak.



Iturria: Zenbait egile, 1999.



1. jarduera




Bidaia bat egitera goaz

1

Alegiazko bidaia bat proposatzen dizuegu. Internet bidez eskura dezakezuen informazio guztiaz baliatuz, bidaia bat antolatu behar duzue 4 lagunekin Madagaskarrera joateko. Beharbada ez duzue herrialde horri buruz asko jakingo, baina Sarean beharrezko datu guztiak topatuko dituzue.

Lehenengo eta behin, bidaiarako hasierako plan bat prestatu beharko duzue. Bilatu taulan agertzen diren galderei erantzuteko behar dituzuen datuak. Hala, motxila prestatu ahalko duzue, eta herrialde zoragarri eta ezezagun horretan izan duzuen esperientzia kontatu bidaia-eguneroko batean. Internet ez baduzu, ondoko informazioa erabil dezakezue (ikusi informazio osagarria).



Madagaskarrerako bidaiarako hasierako plana

- Zein hegaldi-konbinazio egin beharko dugu hara iristeko?
- Zein diru eraman behar dugu?
- Zein hizkuntza dira ofizialak? Etnia desberdinak al daude? Zein dira etnia horiek?
- Zein da ordu-diferentzia?
- Klima eta urtaroa kontuan hartuta, zein arropa sartu behar dugu motxilan?
- Zein dokumentazio eskatuko digute hara iristean?
- Txertatu egin beharko al gara?
- Iristean, zein hoteletan egin dezakegu lo?
- Zein txango egin ditzakegu herrialdearen barnealdetik? Zein ibilbide egingo dugu?
- Zein jaki eta edari tipiko dastatuko ditugu?
- Ziurrenik oroigarriren bat ekarri nahiko dugu Madagaskarretik, zer eros dezakegu?

2

Behin datu horiek eta interesgarritzat dituzuen beste batzuk bilduta, bidaia-egunerokoa idazten has zaitezke. Horretarako, kontuan hartu honako datuak:

- Madagaskarren 4 egun igaroko dituzue.
- Eguneko esperientzia esanguratsuenak kontatu behar dituzue: egindako txangoak eta bisitak; zein hoteletan zaudeten; janaria; erosketak; ezagutu duzuen jendea; bitxikeriak; etab.
- Azkenik, zuen bidaia-egunerokoa gainerako ikaskideei azalduko diezue.

3

Eztabaida bat egin daiteke honako alderdien inguruan:

- Informazioa bilatzeari buruz, erraza izan al da?, harrituta geratu al zarete?
- Bidaia prestatzean eta lekuari buruz informazio gehiago izatean, handitu egin al da lekua bisitatzeko zenuen ilusioa?
- Aldatuko al zenukete benetako bidaia baten esperientzia Internet bidezko bidaia bategatik?, zergatik?
- Zein alde on ditu zure ustez Internet erabiltzeak?, zein arrisku?, zein funtzio?





Dokumentazio osagarria

Interneteko informazioa eskuratu ezin baduzue, ondorengo informazioaz balia zaitezke bidaia prestatzeko. Informazioa Saretik hartua da.

MADAGASCAR Bidaiak eta negozioak

www.ikusca.com/africa/orritik/hartua

Direction du Tourisme de Madagascar

Turismoko Ministerioa, BP 610, Tsimbazaza, 101 Antananarivo, Madagaskar.
tel.: (2) 26298 o Facsmilea: (2) 26710.

Herria. 12.092.157 biztanle.

Biztanle-dentsitatea. 20.6 km²-ko.

Hiriburua. Antananarivo (lehen Tananarive).

Hiriburuko populazioa. 662.585 biztanle.

Geografia. Madagaskar, luzera kontuan hartuta, munduko laugarren uharterik handiena da. Uhar-te txikiagoak ere baditu. Mendikate bat du erdialdean: Hauts Plateaux; uhartearen erdia baino gehiago hartzen du, eta ekialdeko eta mendebaldeko kostaldeen arteko desberdintasun geografiko zein sozial handien eragilea da. Ekialdeko kostaldeko lur baxuen zerrenda estuan Polinesiako arrantzaleak jarri ziren bizitzen VI. mendean. Batez ere, baso heze itxiz estalita dago; mendebaldeko kostaldea, berriz, zabalagoa da eta lehen klima lehorreko hosto erorkorreko zuhaitzen basoz estalita bazegoen ere, orain, gehiena sabana da. Ekialdeko kostaldean mon tzoia izaten da, eta bi kostaldeetan, iparraldean klima hezeagoa da. Uhartearen hegoaldeko muturra erdibasamortua da eta kaktus-baso handiak ditu. Hiriburua, Antananarivo, Hauts Plateaux mendikatean dago, uhartearen erdigunetik gertu. Madagaskarreko floraren eta faunaren





zati handi bat berezia da. 3.000 tximeleta-espezie daude; lemure-mota ugari eta bestelako zenbait animalia; esaterako, mapatxeak, tximinoak, marmotak eta nagiak. Antzeko aniztasuna du narrastitan, anfibiotan eta hegaztitan (batez ere ahateak), eta bertako landare ugari ere baditu.

Hizkuntza. Hizkuntza ofizialak malgaxea (Indonesiarekin lotzen da) eta frantsesa dira. Bertako dialektoak ere hitz egiten dira.

Erljioa. Populazioaren % 51ren sinesmena animismoa da, gutxi gorabehera % 43 kristaua da eta gainerako % 6 musulmana.

Elektrizitatea. Batez ere 220 Volt, 50Hz.

Komunikazioak.

Telefonoa: : Kode nazionala: 261. Handik kanpora deitzeko nazioarteko kodea: 16.

Telex/telegramak: Telex zerbitzuak telekomunikazio-zentroan eta Colbert eta Hilton hoteletan daude hiriburuan. Antananarivoko posta nagusiak (*PTT*) telegramak bidaltzeko 24 orduko zerbitzua du.

Posta: Posta-bulego nagusietan *Poste Restante* zerbitzua dago. Aireko postak Europara iristen zazpi egun behar izaten ditu, eta lehorreko postak, berriz, gutxienez hiruzpalau hilabete.

Prentsa: Sei egunkari argitaratzen dira frantsesez eta/edo malgaxez.

Bisak. Herrialdean sartzeko behar diren agiriak:

Pasaporte/Nortasun-agiria: *Pasaportea.*

Bisa: *Beharrezkoa. Madagaskarreko kontsulatuak egiten dute Madrilen eta Bartzelonan.*

Madagaskarreko enbaxada Parisen:

Rafaelen hiribidea, 4 • Paris 75016 • tel.: 45 04 62 11 • Faxa: 45 04 45 17

Espainiako Enbaxada Antananarivon:

Kantzelaritza: Espainiako Enbaxadorearena Pretorian.

Ohorezko kontsulatua Antananarivon • Kantzelaritza:

Villa Madrid. Ronte de Mahazoarivo-Antananarivo • Telefonoa: 345 82 • Faxa: 345 82

Telexa: (0986) 22312 MADCAR MG.

Nola bidaiatu

Bidaia - nazioartekoa

Airez: Madagaskarreko airelinea nazionala Air Madagascar (MD) da.

Hegaldiaren gutxi gorabeherako iraupena: Antananarivotik Parisera: 13 ordu 30 minutu. Hegaldi erregularrak daude Madagaskarretik Reunion, Maurizio, Kenya, Tanzania, Komoreak edo Seychelleak uharteetara arte.

Aeropuertos internacionales: *Antananarivo (TNR)*, hiritik 17 km-ra. Aireportuko baliabideen artean jatetxea eta dirua aldatzeko bulegoa daude. Autobusak daude *Air Madagascar*-ren bulegoetara arte eta Hilton hotelera arte. Aireportuan taxiak ere badaude.

Beste aireportu batzuk: *Nossi Bé* (Seychelleak Uharteekin lotura), *Mahajanga* (Ekialdeko Afrika eta Komoreak Uharteak), Toamasina (Maurizio eta Reuniongo uharteak); eta *Arivonimamo International* erreserba aireportua), hiriburutik 45 km-ra.

Irteeraren zerga: Nazioarteko hegaldi gehienetan 100 FFr ; 80 FFr eskualdeko barneko hegaldietan. Iragaitzako bidaiariek eta bi urte baino gazteagoko haurrek ez dute zerga ordaintzen.

Bidaia - barnealdea

Airez: Madagaskarren zatirik handienenera airez irits daiteke (200 abiazio-zelai baino gehiago daude), erdialdeko eskualde menditsuetako herrietara izan ezik.

Irteera-zerga: 6000 Mgfr hegaldi nazionaletarako.

Itsasoz • Ibaiz • Kanalez: Madagaskarrek itsas tradizio handia du, eta kostaldeko garraio-zerbitzu asko daude. Ibaietako ur-lasterrak herrialde horren erakargarrietako bat dira; *Dirección de Turismo*-k Betsiboka eta Tsiribihina-n ontzi txikietan safariak antolatzen ditu. Pangalaneko Kanala 600 km-koa da mendebaldeko kostaldean.

Trenez: Toamasina portutik bidaiari-zerbitzua dago, eta Antananarivotik igarotzen da Antsirabe arte (Alaotra aintzirara adar bat du), eta Manakara-tik Fianarantsoa-ra arte. Oihan hezetik igarotzen diren h egoaldeko bideak harrigarriak dira. Lehen klaseko automobilek aire girotua dute. Ibilbide bakoitzean bi edo hiru tren daude egunero. 4 urtetik beheragoko hurrek ez dute txartelik ordaintzen. 4-6 urteko hurrek tarifa erdia ordaintzen dute.

Errepidez: Errepide-sarea konponketa beharrean dago. Hiru ibilbide nagusi daude: Antananarivotik Majungora (RN4), Toamasinara (RN2) eta Fianarantsoara (RN7). Errepide askotatik ezin da ibili euri-urtaroan (azarotik martxora).

Autobusez: Tarifa berdina ordaintzen da bidaia-distantzia edozein izanda ere. Zerbitzuak batzuetan aldakorrak dira.

Taxi: Tarifak finkoak dira, Antananarivon eta Fianarantsoan izan ezik. Horietan tarifa kalkulatzeko, bidea hiri barrukoa ala kanpokoa den hartzen da kontuan. Bi taxi-mota daude: *Taxi-sea* izenekoa azkarra eta eroso da, *Taxi-brousse* izenekoa, berriz, merkeagoa baina motelagoa da; geldialdi gehiago egiten ditu, eta gehienetan herrixketarako ibilbideak egiten ditu. Tarifa aurrez adostu behar da, eta ez dago eskupekoa emateko ohiturarik.

Rickshaw: *pousse-pousse*-k ez du bidaiaririk hartzen zirkulazio handiko lekuetan eta maldak handik igarotzea ezinezkoa egiten duen lekuetan. Prezioak ez dira kontrolatzen eta distantziaren arabekoak dira.

Diligentzia: Oraindik ere estalita-ko gurdi batzuek bidaiariak hartzen dituzte Antananarivon.

Automobilaren alokairua: Turismo-herri nagusietan bakarrik. Kontratutako automobilerako behar diren aseguru-baldintzak zein diren ondo jakitea gomen- datzen da.

Motozikleten alokairua: Club M Dobleren bitartez egin daiteke: Androhibe, BP 1398, 101 Antananarivo. Tel: (2) 42130. Facsimilea: (2) 20171.



Dokumentazioa: Gidatzeko baimen nazionala.



Osasuna. Txertoak: Beharrezkoak *bat ere ez*.

Gomendatuak: Koleraren eta sukar horiaren aurka txertoak hartzea gomendatzen zaie gaixotasun horiek pairatzen dituzten Afrikako herrialdeetatik datozen lagunei. Paludismoaren aurka neurriak hartzea gomendatzen da.

Osasun-egoera: Paludismoa izan ezik herrialde horretan ez dago gaixotasun berezirik. Hiri handietan ohiko osasun-zerbitzua dute: ospitaleak, klinikak eta mediku pribatuak. Hiri txikietan eta landan, zerbitzu hori aldakorragoa da ekipo-gabezia baitago.

Embaxadas.

Embaxada Antananarivon • Kantzelaritza: Espainiako Enbaxadarena Pretorian.

Ohorezko kontsulatua Antananarivon • Kantzelaritza:

Madrid Villa. Ronte de Mahazoarivo-Antananarivo • Telefonoa: 345 82 • Faxe: 345 82

Telexa: (0986) 22312 MADCAR MG.

Madagaskarreko enbaxada Frantzia

Helbidea: 4, av Raphael, 75116 Paris • Telefonoa 45 04 62 11

Eskualdeak.

Erdialdeko eskualde menditsuak. Hiriburua eta beste herri garrantzitsu batzuk *Hauts Plateaux*, mendikatearen erdialdean daude, eta hor Madagaskarren erdialdea iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duten sakak eta ibaiak ikus daitezke.

Antananarivo, askotan laburtuta Tana erabiltzen da. Hiri ganean Erreginaren jauregia dago. Bisita-orduak hauek dira: 09.00-12.00 eta 14.00-17.00. Antzina Merina dinastiaren bizitokia izan zen. Dinastia horrek XIX. mendean Madagaskar osoa bateratu zuen lehenengo aldiz. Analakely-ko azoka beste erakargarrietako bat da. Hirugarren tokian Tsimbazaza dago (*Lorategi zoologikoa eta botanikoa*). Ostegunetan, igandeetan eta jaiegunetan irekita egoten da, eta honako ordutegia du: 08.00-11.00 eta 14.00-17.00. Turismo bulegoa gertu dago.

Ambohimanga, Madagaskar estatuaren sorrera-lekua, hiriburutik 20 km-ra dago. Hiri Urdin, Hiri Santu eta Debekatutako Hiri gisa ezaguna da. Basoz inguratuta dago. Zitadela Merinaren gotorleku garrantzitsua izan zen, eta haien zeremoniekin lotutako zenbait egitura badaude oraindik. Haren hesi nagusia harrizko disko bat da; 40 gizon behar izan ziren hura mugitzeko.

Mantasoa, hiriburutik 80 km-ra dago. Merinako erreginak eremua lorategi bihurtzeko agindua eman zuen. Itsasoan galdutako frantses bat arduratu zen horretaz, eta egun aintzira artifizial bat dago, pinu-basoak eta Madagaskarreko lehenengo parke industrialak.

Ampefy, hiriburutik 90 km-ra dago: eskualde bolkanikoa da eta ur-jauzi harrigarriak eta geyserak ditu. Bitxikerietako bat aingiren arrantza da.

Perinet, hiriburutik 140 km-ra dago, erreserba naturala da, *indri*-ren etxea (buztanik gabeko lemurea) eta orkidea-espezia askorena.

Antsirabe, hiriburutik 170 km-ra dago (110 milia), ur mineral termalaren iturburu da eta Madagaskarreko industrigune nagusia. Kraterretan aintzirak dituzten mendixka bolkanikoek inguratzen dute herria. Madagaskarreko bigarren mendirik garaiena, *Tsiafajovona*, Antananarivoren bidearen mendebaldean ikus daiteke.



Iparraldea. Iparraldean bi mendi handi dira nagusi. *Tsarantanana* uharteko mendirik garaiena da: 2.880 m ditu. Iratze erraldoiz eta mendiko baso hezean ohikoak diren likenez estalita dago. *D'Arbre de Montagne* parke nazionala ospetsua da hango orkidea eta lemurengatik. Montzoia iparraldean abendua eta martxo bitartean izaten da.

Mahajanga probintziako hiriburua da eta Madagaskarreko ibairik handienaren, Betsibokaren, bokalearen ondoan dago. Hiribururako bidea irekita dago uztaila eta urria bitartean. Itsasontziak Nossi Bé-rantz eta beste hainbat uharterantz irteten dira. Hondartzetan ez dago marrazorik. Uharteko haitzulo deigarrienak **Anjohibe**-n daude, barrualderantz 90 km-ra. Erreserba natural bat dago **Ankarafantsika**-n.

Nossi Bé Madagaskarreko erreserbarik garrantzitsuena da. Ipar-mendebaldearen aurrean geratzen diren uharte txikiagoek inguratzen dute uhartea. Hiriburutik hegazkinez ordubetera dago. Hor hazten dira zenbait perfume-landare exotiko; esaterako, ylang-ylang, banilla-landarea (Madagaskar da munduko ekoizle nagusia), limoiaren zelaia eta patchulia. Handik gertu daude XVII. mendeko herri indigena baten hondakinak.

Antseranana eportu kosmopolita da eta uhartearen ipar-muturrean dago badia baten gainean. Probintziako hiriburua da. Portu gainean aintzira eta ur-jauzi ugari daude. Fauna eta flora, lemureak, krokodiloak eta orkideak barne, askotarikoa da. Arbre de Montagne parke nazionala gertu dago, eta hura bisitatzeko baimena *Ministère de Eaux des Forêts*-en lortu behar da; herrian badu bulego bat. Nossi Bé-rako itsasontziak har daitzke. **Ramena**-n hareazko hondartza dago, baina marrazoak daude. Hiribururako errepidea uztaila eta urria bitartean bakarrik dago irekita.

Ile Ste-Marie (Nossi Boraha), 150 km-ra dago Toamasinaren iparraldean. Landaredi ugariak eta inguruko albuferetan nabigatzeko zailtasunak piratentzat base egoki bihurtu zuten uhartea, eta geroago, konbiktuak biltzeko kolonia egoki. Iltze-sail asko daude eta hainbat leku historiko. Horien artean Madagaskarreko eliza katoliko garrantzitsuena.

Toamasina, ipar-ekialdeko kostaldean dago, herrialdeko portu nagusia da eta probintziako hiriburua. Antananarivotik 8 ordura dago eta, hiriburuak bezala, zenbait azoka ditu; adibidez, *Bazar Sea*. Herritik 11 km iparraldera *Ivolinako Lorategiak* daude: animalia-eta landare-mota ugari daude.



Hegoaldea. Hegoalde lehorra ezaguna da hango kaktus- eta baobab-espezie ugariengatik eta biztanleen hilobi-arte bereziengatik.

Fianarantsoa, ardoaren eta arroz-ekoizpenaren gune garrantzitsua da eta hegoaldeko eskualde menditsuak bisitatzeko basea. Inguruko mendietan honako leku hauek bisita daitezke, besteak beste: **Amabalavao**, **Ambondrome** eta **Ifandanako** harkaitzak, **Ambositra** eta **Zafimaniny**-ko herriak, horietan marketeriako lan konplexuak egiten dituzte; Isaloko Parke Nazionala, hareharrizko mendikatean (kanpa daiteke, baina 4 x 4 bidez irits daiteke soilik, eta komeni da gidariren batekin joatea); eta Ranomafana, ur mineral termaleko iturria.

Taolanaro Taolanaro (lehen Dauphin gotorlekua), uhartearen hego-ekialdeko ertzean dago eta frantsesen lehen kokalekua izan zen. Oraindik badaude XVII. mendeko gotorlekuen hondakinak. Hiria eta inguruak ezagunak dira hango itsaskiengatik, orkideengatik eta landare haragijaleengatik; landare hori **Sainte-Luceko badian** ikus daiteke.

Mendebaldea. Madagaskarreko mendebaldea antzina hosto erorkorreko basoz estalia egon zen, baina egun, batez ere, sabana da. Ekonomia zebuan oinarritua dago; zebua Asiako hego-ekialdeko kolonoek VIII. mendean sartutako buia-mota bat da.

Toliara, hego-mendebaldeko kostaldean dago. Hango hondartzetan uretako eskian, arrantzan, nabigazioan eta bestelako ur-kiroletan jarduteko aukera handia dago.

Fiestas. Gertaera aipagarriak: Gertaera tradizional eta ospakizun asko daude, batez ere landa-inguruneetan. *Gasy de Mphirak* abeslari malgaxeak dira, eta kantatuz, dantzatuz eta taldekako antzerkiak eginez, istorioak kontatzen dituzte eta Madagaskarreko ikuspegi aberatsa islatzen dute. Gehienetan ekitaldi batek 30 minutu irauten du. Arrozaren uzta ezaguna da leku askotan.

Gastronomia. Janaria eta edaria: Madagaskarren, sukaldaritzaren oinarria arroza da zenbait saltsaz, haragiz eta barazkiz gozatuta. Plateretan honakoak aipa daitezke: ro izenekoa (belar eta orri batzuk arrozarekin nahasita); haragi marinatua eta txerri-haragia ozpinetan, uretan eta oliotan, orri, barazki eta tipularekin prestatua eta piperrekin gozatua; ravitoto izenekoa (haragia eta orriak batera prestatuta); el ramazava (orriak eta txerri-haragia oliotan frijituta); anana (arroza, orriak edo belarrak, haragia eta batzuetan ganbak), askotan kitozarekin jaten da (fumó, curó edo haragi frijituko xerra luzeak). Madagaskarreko lagunei janaria oso beroa gustatzen zaie eta askotan piperbeltz oso minez prestatzen dituzte jatekoak. **Edariak:** Ez dago edari-mota asko. Ardo nazionala balekoa da. Edari malgaxeak, besteak beste, hauek dira: *litchel* (litchietatik egindako aperitiboa), *betsa* (alkohol hartzitua) eta *toakako gasy* (arroz-azukrea distilatuta). Alkoholik gabeko edarien artean ranon eta bertako ur mineralak aipa daitezke.

Dibertsioak.

Gaueko bizitza: Herri nagusi gehienek zinemak eta antzokiak dituzte, eta turismoko antzerki-taldeen bertako antzezlanak egiten dituzte herrialdean zehar. Dantza tradizionalako konpainiak ere badaude.

Kirola. Uretako kirolak: Urpean igeri egiteko gune nagusiak dira Nossi Bé (Tanikely, Nossi Mitsio eta Nossi Radama uharteekin), Nossi Lava, Toliara eta Ste-Marie (Nossi Boraha). **Uretako eskia eta nabigazioa:** guneak Ambohibao-n (Mantasoa aintzira), Antsiralse-n (Andraiki-ba aintzira) eta Ramona-n daude.



Erosketak.

Artisautzan hainbat jarduera eta lan daude: lamba (hainbat planetako oihalezko koadratu tradizionalak eta ehunezko materialak); zafimaniny-ko marketeria (altzarietan, xake-tauletan eta kutxetan erabiltzen da); zilarra lantzea, adibidez, mahafaly eta vangavanga-eskumutur-rekoak; bitxigintzan bitxiak oskolez eta harribitxiez egiten dira; kanaberaz, errafiaz eta lastoz egindako gaiak; antemore-papera lore lehorrez apaindua; eta brodatuak. Flora edo fauna malgaxea duten produktu guztiek (lore lehorrak barne) esportatzeko baimenak behar dituzte. Erosleek produktu horiek erosterakoan ziurtatu egin behar dute baimen horiek badi-tuztela. **Denda-ordutegia:** 08.00-12.00 eta 14.00-18.00 astelehenetik larunbatera.

Segurtasuna.

Segurtasun baldintzak.

Arrisku-guneak (saihestekoak): Bat ere ez.

Arrisku ertaineko guneak (arretaz bisitatzeko lekuak): Bereziki bat ere ez.

Arazorik gabeko guneak: Herrialde osoa.

Ekonomía.

Ekonomía: Ekonomia batez ere nekazaritzan oinarritua dago eta, bereziki kafe-ekoizpenean. Uharteko beste uzta garrantzitsuak dira banilla, iltze usainduna, kakaoa eta gurinezko babarrunak. Arroza eta yuka herrialdean bertan kontsumitzeko ekoizten dira. Madagaskarrek ustiatzeko hainbat mineral ditu, hala nola, kromoaren mea, bauxita eta titanioaren mea. Gutxi gorabehera produktu nazionalaren % 12 ehungintzakoa da. Herrialdeko olio-fintzea diru-sarrera garrantzitsua da; inportatutako olioaren ere energia-baliabide garrantzitsuen artean dago. Madagaskarreko ekonomia hazi egin da laurogeiko hamarkadaz gero aldizkako beherakada batzuk egon arren, zikloien ondorioz, esaterako; izan ere, haiek nekazaritzan kalte handiak eragin zituzten. Duela gutxi, Gobernua Madagaskarreko beste baliabide garrantzitsu bat ustiatzeko moduak aztertzen jardun da: ekoturismoan indar handia duen fauna exotiko ugaria.



2. jarduera



Banakako inkesta

1

Kontsumoaren eta komunikabideak erabiltzeko duzun moduaren inguruan hausnartzeko, erantzun banaka ondorengo inkestari:

	BAI	EZ
• Gizarte-komunikabideek benetako informazioa, objektiboa eta neutrala ematen dute.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
• Albistegia entzun edo ikusi ondoren, gustura geratzen naiz bestelako errealitateak ezagutarazten dizkit eta.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
• Irratia entzun, telebista ikusi, egunkariak irakurri eta Internetetik nabigatu ohi dut entretenitzeko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
• Elkarrizketetan albiste bati buruz ari direnean (uholdeak Mozambiken, Jugoslavia ohiko gerra, etab.), batez ere, irudi zehatz bat gogoratzen dut.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
• Albisteak irakurtzean edo ikustean zein agentzietatik edo iturritik datorren begiratzen dut.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
• Supermerkatuetara joatean, ezaguna egiten zaidan produktua hartzen dut.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
• Egun berean, hainbat katetako albistegiak ikusten ditut eta albiste bera hainbat egunkaritan irakurtzen dut.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
• Telebistako iragarkiak erakargarriak iruditzen zaizkit.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
• Komunikabide nagusien jabeen enpresak edo izenak ezagutzen ditut.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
• Egunkarien itxurak edo aurkezleen itxurak prentsa erosteko edo telebistako saioa aukeratzeko orduan eragina izaten du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
• Interneten nabigatzea ezinbestekoa izango da 5 urte barru.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
• Komunikabideen aurrerapenek bidegabekeriak salatzea erraztu du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
• Telebistak emandako zuzeneko irudirik gabe ez litzateke hainbeste diru bilduko Mitch urakaneko, Venezuelako eta Mozambikeko hondamendi naturaletako biktimentzat.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
• Albiste bat entzun ondoren, argi izaten dut gertaeraren jatorria eta ondorioak zein diren.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
• Komunikabideak ez daude interes ekonomikoak dituen inolako enpresari lotuta.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
• ¿Astean bi ordu baino gehiago ematen al dituzu informazio orokorreko edo espezializatutako aldizkariak irakurtzen?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
• Astean hamar ordu baino gehiago ematen al dituzu telebista ikusten?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

- Esan 3 informazio-agentziaren izenak

.....

- Esan hiru egunkari nazionalen izenak

.....

- Esan beste herrialde batzuetako 3 egunkariaren izenak

.....

- Esan telebistako 3 programaren izenak

.....

- Aipatu 3 publizitate-iragarki

.....

- Esan zein diren egunkarietatik gustukoena dituzun 3 atal

.....



2

Orain taldean hausnartuko dugu komunikabideek guregan duten eraginaren inguruan

Taldean hitz egiteko galderak

- Zure ustez telebistak lehentasuna al du beste komunikabideekiko? Zergatik?
- Zure ustez zein gairen inguruan duzu informazio gehien (nazioarteko berriak, kirolak, kultura, bihotzeko prentsa, ekonomia, politika nazionala, autonomikoa...)?
- Ba al dakizu gaurkotasuneko gertakari bat kontatzen hasieratik amaiera arte, edo gertaera bakanei buruzko informazio gehiago duzu?
- Irakurtzen al dituzu artikuluetako sinadurak edo agentzia egilearen izena?
- Egunkarietako zein atalari begira ematen duzu denborarik gehien? telebista eta ikuskizunak, kirolak, artikulua sakonak edo erreportajeak (politika nazionalari edo nazioartekoari buruzkoak), berri laburrak (politika nazionalari edo nazioartekoari buruzkoak), tokiko atala, ekonomia.
- Inkestako azken galderan, bat etorri al zarete atalen batean? Publizitate-iragarki berak imajinatu al dituzue? Zer egin zaizu deigarrien?



5.1.2. Komunikabideen ahalmena eta eragina

3. jarduera: *Egunkaria irakurtzen*



Irakasleentzako gida

1. Helburuak

- Prentsan 'ezkutatutako' mezuak kritikoki aztertzeko, tresnak ematea.
- Errealitatearen ezagutza hobetzeko eta aberasteko, komunikabideek eskaintzen dituzten hainbat aukera ezagutzea eta erabiltzea.

2. Segida

3. jarduera *Egunkaria irakurtzen*

- *Deskribapena:* Prentsa ikuspuntu kritikoz aztertuko dugu, batetik, informazio-iturriei (agentziei) eta, bestetik, albisteak gertatzen direnetik agentziek idazten dituzten arte jarraitzen duten 'norabideari' erreparatuz.
- *Beharrezko materiala:* Egunkariak, guraizeak, munduko mapa handia eta errotuladorea. A. Petersen planisferio politiko proiektioduna erabil daiteke, Vicens Vives editorialarena, haren gainean marraztu eta ezabatu egin baitaiteke.
- *Dinamika:* Taldeka.
- *Kalkulatutako denbora:* o 40 minutu.
- *Ikusi:* Dokumentazio osagarria.



3. jarduera



Egunkaria irakurtzen

1

Eskura dituzuen egunkarietatik, aukeratu nazioarteko bost albiste, eta bete ondoko fitxa hau.

Herraldea (zein herrialdeetako albistea da)	Gertaera (albiste egiteko modukoa)	Formatua (adibidez: bi zutabe + argazkia)	Informazio-agentzia (izena)	Agentziaren nazionalitatea (ikusi taula)

Agentzia nagusiak eta haien herrialdea

Agence France Presse (AFP)	Frantzia	Bridge News	Estatu Batuak
Agencia EFE	España	Canadian Press	Canadá
Reuters	Erresuma Batua	Deutsche Press Agentur (DPA)	Alemania
Associated Press (AP)	Estatu Batuak	United Press International (UPI)	Estatu Batuak

2

Aukeratu hiru albiste garrantzitsuenak, eta bakoitzean moztu albisteko gertaera laburtzen duen izenburua eta hura hedatzen duen agentziaren izena

3

Denen artean gaiari buruz hitz egiteko, talde bakoitzeko pertsona batek aukeratutako albistek azalduko dizkie gainerakoei. Horretarako, albistek munduko mapa batean itsatsiko ditu eta gezi handi batez argi adieraziko du albistek gertatu den herrialde hura zabaldu duen agentziaren herrialdera arte hartu duen norabidea. (Adibidez: France Press agentziak Madagaskarri buruz idatzitako albiste bat badugu, Madagaskarretik –albistearen jatorriko herrialdeetik– gezi bat egingo dugu Frantziara arte –albistearen berri ematen den herrialdera arte.)



4

Talde guztiek azalpena egin ondoren, mapari erreparatuko diogu. Honako galderen inguruan hitz egin dezakegu:

Zenbait galdera:

- Zein herrialderi buruz dugu informazio gehien?
- Zein motatako albisteak jasotzen ditugu Afrikatik, Latinoamerikatik eta Asiatik?
- Zein berri mota agertzen dira Hegoaldeko herrien inguruan? Zein eragin dute herrialde horietaz dugun ikuspegian?
- Non biltzen dira albisteak hedatzeko puntu nagusiak?
- Zer pentsarazten dizue horrek guztiak?



Dokumentazio osagarria.


- Informazio-agentzia nagusiak ipar-hemisferioan biltzen dira. Informazioa 'kultur'-kolonizazio-ko baliabide modernoa da.
- Egunkari desberdinetako albiste nagusiei erreparatzen badiegu, ohartuko gara albiste bakoitzari emandako espazioak eta formatuak, komunikatu nahi den gertaeraren garrantzia adierazten duela (linguistikoki ez, ordea).
- Europako eta Ipar Amerikako prentsa-agentziak albisteak aukeratzeko iragazki handiak dira. Gainera, gune gutxi horietatik informazioa modu homogeenan zabaltzen da, kontuan eduki gabe hartzaile-mota asko daudela. Azkenik, agentzia afrikar eta hegoamerikar gutxi daudenez, herrialde haiek ezin dute beren albisteen berri eman; beraz, Europako eta Hego Amerikako agentziak erakusten dute herrialde afrikarretako, asiarretako eta latinoamerikarretako errealitatea.
- Albisteetako hitz nagusietatik abiatuz, herrialde pobretuetatik iristen zaizkigun irudi estereotipatuenguruz eta irudi horiek herrialde horietaz dugun ikuspuntuan duten eraginaren inguruan gogoeta egin dezakegu (esaterako, hondamenezko irudi batzuetan hegoaldeko zenbait herrialderen irudi negatiboa ematen da: beste batzuen ekintzen aurrean ezer esaten ez duten lekukoak direla dirudi).

Afrika ikusteko dugun moduan kontuan hartzeko zenbait datu

- DYM Institutuak Intermonentzat inkesta bat egin zuen 1998ko maiatzaren 8tik 18ra. Inkestatutako 16-65 urteko Espainiako 2.000 lagunetatik % 75ek Afrika pobreziarekin, gosearekin eta gaitasunarekin lotzen du.
- *El País* egunkariaren 1999ko urtekariko albisteetatik % 3,5 baino ez da Saharatik hegoaldeko Afrikari buruzkoa
- Kazetari eta korrespontsal espezializatuengandik informazio-agentzia handiak aritzen dira (France Press, Reuters...). Azken horiek informazio bera azkar eta zatikatuta zabaltzen dute mundu osoan. Hedapen-mota hori dela eta, albisteak erdi-mailako irakurleei edo entzuleei zuzentzen zaizkie eta gehiegi laburtzen zaizkie (Afrikako gatazkak askotan tribuen arteko lehiak baino ez dira izaten azkenean).

- Afrikatik iristen zaizkigun irudi gehienak, eta batez ere arte-mundukoak (zinema, dokumentalak, pintura edo eskultura), Europako edo Ipar Amerikako gidoiariek eta artistek berriro interpretatu ondoren heltzen dira gugana. Afrikako oroitzapenak, *Zeru babeslea*, Afrikako faunari buruzko dokumentalak eta abar horren adibide garbiak dira.
- Era berean, literatura afrikarra guztiz ezezaguna da mendebaldeko munduarentzat. Horixe adierazten dute Verónica Pereirak eta Luis María Morak *Literatura afrikarrak* liburuan: Afrikako 1.800 lanen izenburu aipatzen dituzte eta horietatik 80 baino ez dira itzuli frantse-sera, ingelesera edo portugese-ra.
- A pesar de contar con una cultura milenaria y una riqueza histórica evidente, también hemos “olvidado” a África en estos aspectos:
 - Historiako liburuetan behin eta berriz esaten da Grezia klasikoa gure kultura osoaren sorlekua dela, eta ez da aztertzen zibilizazio hori, era berean, Egipto ohitik nola piztu zen. K.a. 3500. urteko inperio hori beti Ekialde Hurbileko herrialdeekin lotuta agertzen da; ikasleek dituzten mapetan ere Egipto gainerako Afrikako kontinentetik oso isolatuta azaltzen da. Indiako Ozeanoan izaten den merkataritza-trafikoari buruz ere ez da atal zehatzik idazten eta, hain zuzen, trafiko horri esker daude Asiaren, Europaren eta Afrikaren arteko harremanak.
 - DBHko egungo testu-liburuetan, Afrikari buruzko gaia ikuspuntu oso negatibotik azaltzen da eta dena antzekoa izango balitz bezala, kontinenteko 60 herrialdeen arteko kultur, geografia- eta hizkuntza-desberdintasuna, besteak beste, adierazi gabe (Adibidez, Bostwanan biztanle-dentsitatea bat edo bi biztanlekoa da km²-ko, Burundin, berriz, 200 biztanle daude km²-ko).
 - Espainian Afrikaren inguruan dagoen ezjakintasun bera ere albiste da egun. 1998ko abuztuaren 8ko *El País* egunkariaren izenburuak honela zioen: “*Espainiako biztanleen % 25ek ez daki Afrikako herrialde baten izena esaten*”.

Iturria: Lucía Alonso, 2000.




5.2. Mitoak eta estereotipoak gizarte-komunikabideetan

5.2.1. Estereotipoak

4. jarduera *Gertaerak eta iritzia*

5. jarduera *Istorioak kontatuko ditugu*



Irakasleentzako gida

1. Helburuak

- Gure portaera baldintzatzen duten eta komunikabideek –batez ere, publizitateak– indartzen dituzten estereotipoez eta aurreiritziez jabetzea.
- Irudien bereizketarik gabeko kontsumoa saihestea ikus-alfabetatzearen eta zentzu kritikoaren bidez.
- Mezueta alderti sinbolikoak aurkitzea, edo esaten edo deskribatzen dena eta ulertarazten dena bereiziz.
- Irudia eta hari dagokion erreferentziarekin ez nahastea.
- Irudien balio estetikoaren balioestea eta sormena piztea.


2. Segida

4. jarduera: *Gertaerak eta iritziak*

- *Deskribapena:* Gertaerak eta iritziak bereizteko zailtasunetik abiatuta, ikasleek beren estereotipoak eta aurreiritziak zalantzan jarriko dituzte oinarri bezala topikotzat hartzen diren zenbait adierazpen hartuz.
- *Beharrezko materiala:* Materialarekin batera doazen galderak.
- *Dinamika:* Banakakoa eta taldekakoa.
- *Kalkulatutako denbora:* 50 minutuko saio bat.
- *Ikusi:* Irakasleentzako erantzunak eta eztabaidarako galderak.

5. jarduera: Istorioak kontatuko ditugu

- Argazki batzuetatik abiatuz, ikasleek irudietan agertzen diren lagunen istorioak berregingo dituzte (beren izenak, bizi diren herrialdeak, ikasketak, lana, etab.).
- *Beharrezko materiala:* Lagunen irudiak talde bakoitzarentzat.
- *Dinamika:* Taldeka.
- *Kalkulatutako denbora:* 50 minutuko bi saio.
- *Ikusi:* Irakasleentzako erantzunak eta dokumentazio osagarria.





4. jarduera



Gertaerak eta iritziak

1

Ondoko esaldiak abiapuntutzat harturik, adierazi zein diren gertaerak eta zein iritziak. Ondoren, gela guztiarekin bateratuko ditugu emaitzak eta haien inguruan hitz egingo dugu.

	Gertaera	Iritzia
• Larunbatak astelehenak baino hobeak dira.		
• Landareak izaki bizidunak dira.		
• Eguzkia energia-iturri bat da.		
• XXI. mendean gaude.		
• Erretzea kaltegarria da osasunerako.		
• Kanariak artxipelago bat da.		
• Neguan elurra egiten du.		
• Landan hirian baino hobeto bizitzen da.		
• Mutilak neskak baino indartsuagoak dira.		
• Neskak mutilak baino sentiberagoak dira.		
• Hirugarren munduan jendea pobrea da.		
• Katalanak andaluzak baino langileagoak dira.		
• Madrildarrak pixka bat harroputzak dira.		
• Afrikarrek erritmo handia dute.		
• Arabiarrak musulmanak dira.		
• Abuztuan bero egiten du.		
• Hegaztiek hegan egiten dute.		
• Zurak erraz hartzen du su.		

Iturria: Amani Taldetik egokitua, 1994.



2

Taldean hitz egiteko galderak.

- Zer egin zaizu deigarrien?
- Zure ustez 'gertaeratzat' hartzen al ditugu benetan 'iritziak' direnak? Jarri adibide bat.



Irakasleentzako erantzunak

Larunbatak astelehenak baino hobeak dira	Hedatutako iritzia. Esperientzien arabera dago. Esate baterako, ikasle batek atsedean gehiago izango du larunbatean, zerbitzari batek, aldiz, asteburuan lan gehiago egin beharko du.
Landareak izaki bizidunak dira	Zientifikoki egiaztatutako gertaera dela esan daiteke.
Eguzkia energia-iturri bat da	Gertaeratzat har daiteke
XXI. mendean gaude	Adierazpen horrek mendebaldeko munduaren egutegia bakarrik hartzen du kontuan; esaterako, musulmanek eta juduek bestelako egutegiak erabiltzen dituzte.
Erretzea kaltegarria da osasunerako	Gertaeratzat har daiteke, nikotinak eta mundrunak birrikak kaltetzen baitituzte, bestelako bizi-organoez gain.
Kanariak artxipelago bat da	Gertaera geografikoa da
Neguan elurra egiten du	Lekuaren arabera da. Ez du leku guztietan elurra egiten, noski. Negua ez da ezta hotza ere Ekuadortik gertuko eskualdeetan.
Landan hirian baino hobeto bizitzen da	Argi dago konparaketa bat dela, 'hobeto bizitzen da', eta hori aldagai askoren arabera dago: zer esan nahi du guretzat 'hobeto bizitzeak'? (bizi-kalitatea, erosotasunak, lasaitasuna, naturarekin harremana, klima, zerbitzuetarako erraztasuna...).
Mutilak neskak baino indartsuagoak dira	Orokortze matxista. Zein esanahi ematen diogu 'indartsu' hitzari? Indar fisikoa bakarrik esan nahi al du?
Neskak mutilak baino sentiberagoak dira	Honi ere aurreko azterketa bera aplikatzen zaio. Zein esanahi ematen diogu sentikortasunari?, zergatik dugu soilik emakumeen ezaugarria dela esateko joera?

<p>Hirugarren munduan jendea pobrea da</p>	<p>Orokortze sinplista: 'pobrezia' ren kontzeptu oso mugatu bat baino ez da kontuan hartzen, ekonomiarekin lotutakoa, hain zuzen. Egia da Hegoaldeko herrialdeak deiturikoetan (hori ere orokortzea da) pobrezia-indizeak handiagoak direla Iparraldeko herrialdeetan baino, baina, hala ere, adierazpen horrek zenbait alderdi garrantzitsu ezkututzen ditu: kultur aberastasuna eta giza aberastasuna, era askotako baliabide naturalak, etab.</p> <p>Honako errealitateak kontuan hartuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Europan 50 milioi pertsona inguru pobrezian bizi dira eta 18 milioi lagun lanik gabe daude. • Amerikako Estados Unidos 40 milioi lagunek ez dute osasun-zerbitzurik. <p>Zuzena izango al litzateke Europar eta AEBetan jendea pobrea dela esatea, datu horiek kontuan hartuta?</p>
<p>Katalanak andaluzak baino langileagoak dira. Katalogazio bat da: ezaugarri partikularretatik abiatuta, ezaugarri hori talde osoari ezartzen zaio.</p> <p>Madriildarrak pixka bat harroputzak dira.</p> <p>Afrikarrek erritmo handia dute</p>	<p>Se trata de una catalogación en la que, a partir de cualidades particulares, se generaliza esa cualidad a todo un grupo.</p>
<p>Arabiarrak musulmanak dira.</p>	<p>Adierazpen hori ez da zuzena, arabiar guztiek (kulturari eta geografiari dagokion terminoa bera) ez baitute sinismen musulmaneko botoa egin. Adibidez: arabiarra eta katolikoa edo protestantea izan daiteke edo musulmana eta europarra.</p>
<p>Abuztuan bero egiten du.</p>	<p>Kontuan izan behar da zein eskualderi buruz hitz egiten ari garen, eta Eguzkiarekiko duen kokapena eta Ekuadortik duen distantzia. Esaterako, ipar-hemisferioan abuztuan urteko lehen hiletan baino handiagoa egiten du; ez ordea Ekuadortik urrunago dauden hego-hemisferioko herrialdeetan; adibidez, Txilen abuztuan negua da, beraz, hotza egiten du.</p>
<p>Hegaztien hegan egiten dute.</p>	<p>Hegazti guztiek ez dute hegan egiten: oiloak horren adibide garbi dira.</p>
<p>Zurak erraz hartzen du su.</p>	<p>Zur guztiek ez dute erraz hartzen su. Zura hezea badago, ez du erraz hartzen su.</p>



5. jarduera



Istorioak kontatuko ditugu

Lau lagun argazkiak erakutsiko dizkizuegu. Demagun biografoak garel. Gure lana pertsonaia bat aukeratzea eta haren istorioa asmatzea izango da. Talde osoaren artean pertsona horren istorioa idatzi behar duzue: izena, adina, sorlekua, argazkian non dagoen, lana, etab. Horretarako zuen irudimen eta sormen guztia erabili beharko duzue.

Istoria idatzi aurretik, jarraitu honako urratsei:

<div style="display: inline-block; background-color: #808000; color: white; padding: 5px; font-weight: bold; font-size: 2em;">1</div> Aukeratutako argazkiari arretaz erreparatu ondoren, idatzi zuen pertsonaiaren datu garrantzitsuenak:	
• Izen-deiturak
• Adina
• Sorlekua
• Argazkian zein lekutan dagoen
• Familia
• Lana / ardura
• Ezaugarri fisikoak
• Bere izaeraren ezaugarriak
• Bere bizitzako gertaera garrantzitsuenak
• Kezka edo oztopo nagusiak

2

Zehaztu zuen kontakizuneko oinarrizko elementuak ondoko aukeretako bat aukeratu ondoren:

- | | |
|-------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> Ikuspuntua. | <input type="checkbox"/> Barruko eta kanpoko denbora. |
| <input type="checkbox"/> Narrazio lineal kronologikoa. | <input type="checkbox"/> Kontalari-mota (lekukoa, orojakilea, protagonista, autobiografikoa...). |
| <input type="checkbox"/> Narrazio zirkular itxia. | <input type="checkbox"/> Tokia. |
| <input type="checkbox"/> Narrazioa denboran saltoak eginez. | |

3

Adierazi zein diren kontaketa zati eta lokailu nagusiak.

4

Datu horietaz baliatuz, aukeratu izenburua zuen istorioarentzat.



5

Kontaketa egin duzuen pertsona horien benetako istorioen berri emango dizuegu.

6

Irudikatutako eta benetako istorioa alderatu ondoren, zein desberdintasun ikusten dituzue? Zuen ustez aurreiritziak izan al dituzue istorioa idazterakoan?








Irakasleentzako erantzunak

1. Aukeratutako argazkiari arretaz erreparatu ondoren, idatzi zuen pertsonaiari buruzko daturik garrantzitsuenak:

• Izen-deiturak	Juan José Juana Baragaño.
• Adina	40 urte.
• Sorlekua	Espainia.
• Argazkian zein lekutan dago?	Haur-klinika bateko egongelan.
• Familia	Ezkondua eta bi seme-alaba.
• Lana / ardura	Emagina: 18 urteko esperientzia.
• Ezaugarri fisikoak	Dotorea, argala, ilezuria, begirada misteriotsua.
• Bere izaeraren ezaugarriak	Sentibera eta gogoetatsua.
• Bere bizitzako gertaera garrantzitsuenak	<ul style="list-style-type: none"> • Medikuen laguntzarik gabe erditzea erabaki zuen emakume bati erditzen lagundu zion. • Konstituzioari begiratzea bere lanbide-aukeraketa defendatzeko.
• Kezka edo oztopo nagusiak	<ul style="list-style-type: none"> • Medikuek eta ginekologoek berarekin lan egiteko orduan dituzten eragozpenak (gaixoez beraiek jarritakoak baino handiagoak). • Bere lanbideak jendearengan pizten duen morboa eta ironia. • Emagin Eskolako hamar ikasleko hiru baino ez dira gizonaek (250 gizon eta 6.800 emakume).

Nor da Juan José Juana Baragaño?



Bere lanaldia amaitu du eta klinikako egongelako mahai gainean eserita atsedean hartzen ari da. 18 urte daramatza bere lanbidean klinikari. Juan José emagina da, bai emagina, berak dioen bezala: "Ez naiz saiatu terminoa maskulintzen".

Bi haur dituen 40 urteko madrildar gizon ezkondu honek hasieratik zuen argi bere lanbidea, baina Emagin Eskolan sartzea ez zen erraza izan: "Urtebetez auzitan eta borrokatzen ibili behar izan nuen eskolan eskaera aurkeztea utz ziezadaten". Beraz, Konstituziora jo behar izan zuen. Behin eta berriz honakoa esan behar izan zuen: "Espainiar guztiok berdinak gara legearen aurrean, sexua, arraza, adina... kontuan hartu gabe".

Juan Joséri emakumeenganako sentitzen duen mirespenak bultzatu zion lanbide hori aukeratzera, batez ere, bizitza berri bat ematerakoan adierazten den amatasun biziaganako. Baina Juan José ez da konformatzen erditzeko gelan duen laguntzaile-zereginarekin, eta erditzeko unean amaren baldintzak hobetu ahal izateko aukeren inguruan hausnartzen ari da beti.

Bitxia da, baina Juan Josék ez zituen oztopoak izan ikasketa espezializatuak hasteko garaian

bakarrak, askotan, mediku batzuek oztopo bat baino gehiago jarri dituzte: "Ez du emakume batek ere gaizki erreakzionatu bere emagina gizonetzkoa dela ikustean. Duela urte batzuk harritu egiten ziren, baina orain ez; aitzitik, medikuek beraiek jarri dizkirate eragozpenak lan egiteko orduan".

Osasun-ingurutik kanpo ere batzuei morboa ematen die emaginaren lana gizonetzko batek egitea, eta batzuk ironiaz esamesaka ere aritzen dira. Juan Josék onartzen du gizartearen presio edo harridura horrek bere kontu pertsonalen inguruan hausnartzera eta haiek zalantzan jartzera bultzatu ziotela: "Denbora batez nire sexu-nortasuna zalantzan jarri nuen, baina nire bokazioak ez zuela zertan adierazi homosexuala izatea ohartu nintzen".

Osasun-langile hau bere lanaz eta bi sexuko ikasleen lehen promozioko emaginetako bat izateaz harro dago. Hainbeste urtetako oroitzapen eta anekdoten artean bereziki bat oso gogoan du: "Emakume bat oso bakarrak sentitzen zen erditzerakoan bere senarrak ez zuelako berarekin egon nahi. Bere ondoan eserita geratu nintzen, bere adorea miretsiz. Gelako iluntasunean, bere haurra mundura ekarri zuen, bere nahiei jarraituz klinika-laguntzaileari deitu gabe. Biok egin genuen negar, eta eskerrak eman nizkion une ura bizi-arazteagatik".

Juan José bere jakintza sakonduz joan da: Sexologiako master bat egin zuen, eta bere aisialdian, batzuetan, ikasle gazteei hitzaldiak ematen dizkie sexu-harremanei buruz.

Madrildar hau tradizioz emakumeena bakarrak izan den lanbide horretan aritzen den 215 gizonetako bat da.

<i>Aung San Suu Kyi-ren istorioa</i>	
• Izen-deiturak	Aung San Suu Kyi.
• Adina	55 urte.
• Sorlekua	Birmania.
• Argazkian zein lekutan dago?	Bere etxeko bulegoan, Ranguneko Unibertsitateko 54. zenbakian.
• Familia	Irakasle ingeles batekin ezkondua dago; bi seme-alaba ditu, 18 eta 21 urtekoak.
• Lana / ardura	Politika eta herri-mugimenduaren buruzagi Birmaniako erregimen militarren aurka.
• Ezaugarri fisikoak	Begi handiak, irribarre zuria, azal horixka.
• Bere izaeraren ezaugarriak	Saiatua eta bere buruaz ziur dagoena.
• Bere bizitzako gertaera garrantzitsuenak	<ul style="list-style-type: none"> • Bere aitaren hilketa, 2 urte zituenean. • Bere amaren lana: Birmaniako enbaxadorea Indian 1960an, Aung-ek han egin zuen batxilergoa. • Doktoretza-ikasketak Filosofia, Politika eta Ekonomia Zientzietan Oxforden. • Bakearen Nobel saria eman zioten giza eskubideak defendatzeagatik. • Demokraziarako Liga Nazionalaren sortzaile izendatu zuten. • Diktadura-erregimenean aurkako borroka: 44 milioi birmaniarrei askatasuna ematea. • Askatasuna eta giza duintasuna defendatzea.
• Kezka edo eragozpen nagusiak	• Birmaniako diktadura-erregimena.

Nor da Aung San Suu Kyi?



Argazkiko emakumearen izena Aung San Suu Kyi da. Birmanian jaio zen 1945. urteko ekainaren 19an. Urte batzuk geroago Bakearen Nobel saria eman zioten Birmanian askatasuna eta giza eskubideak defendatzen egindako lanagatik.

Baina, une zorionsu hori iritsi aurretik, ordu oso latzak utzi behar izan zituen atzean. Bi urterekin aitik gabe geratu zen. Aung San, bere herriaren independentziaren alde borrokatu zen Birmaniako heroi nazionala, talde militar batek erail zuen 1948. urtean. Orduan, bere ama Birmaniako enbaxadore izendatu zuten New Delhin, eta, ondorioz, bizileku batetik bestera aldatzen hasi zen. Indiako giro horretan, gure protagonista liburuekin eta kulturarekin estuki lotzen hasi zen, eta horrek eraman zuen Oxforderraino, eta han Filosofia, Politika eta Ekonomia Zientzietan doktoretza egin zuen.

Hala, Aung San Suu hainbat kulturaren eragina jasoz joan zen, baina bere obsesio handia oraindik ere askatasuna eta giza duintasuna babestea zen. Oxfordeko zelaietako ibilaldi geldoetan izan zuen maitemintzeko astirik (Michael Aris ezagutu zuen, egun bere senarra), baina oraindik bere Birmaniako herritarrek pairatzen zituzten sarraskiak gogoratzen zituen melankoliaz eta tristuraz. Birmania 1962. urteaz geroztik Ne Win jeneralaren diktadurapean zegoen. Hura Konstituzioak onesten zuen alderdi ofizial bakarren buru zen, zeinak krisi sozioekonomiko larria piztu baitzuen.

Munduko gorabeherenganako zuen interesak bultzatuta, maletak egin eta Nazio Batuen egoitzan lan egiteko New Yorkera joan zen hiru urtez bizitzera. 1972an Londresera itzuli zen, eta han ezkondu eta familia bat osatu zuen, eta bere herrialdea gehiago ezagutzeari ekin zion. Bien bitartean, Rangunen, Ne Win jeneral xenofobo nazionalistak traidore izatea egozten zitzaion propaganda sustatzen ari zen. Baina Birmaniako egoera muturreraino iritsi zen, eta 80ko hamarkadan etengabeak ziren demokratizazio handiagoea eskatzen zuten ikasleen eta monje budisten protestak. Gobernuak protesta horiekin errepresioarekin, atxilotze arbitrarioarekin eta heriotzarekin erantzun zien, askotan, aurkako ahotsena.

Aung San Suunek Rangunekin 1988. urtean egin zuen berriro topo. Aung hara joan zen ama hilurrena zaintzera. Une horretan herrialdean zegoen gizarte-egoera ikusirik, diktaduraren aurka argi azaldu zen. "Demokrazia parlamentarioa aldarrikatzen nuen, oinarritzko giza eskubideak haustea salatzen nuen eta manifestazio bakezaleen masakreen aurka protestatzen duen." Arrazoi horiengatik, Demokraziarako Liga Nazionala eratu zuen, bera izan zen buru, eta 1990eko hauteskundeetara aurkeztu zen. Sekulako arrakasta izan zuen Gobernuaren alderdiarekin alderatuta (botoen % 80 eskuratu zuen).

Baina, Gobernuak herriaren nahia alde batera utzi eta oposizioaren jardura debekatu zuen. 1989ko uztaillean Aung San Suu Kyiri etxe barruko atzipenaldia eta inkomunikazio-zigorra ezarri zioten. Gogoan du esperientzia gogor hura: "Irratiari –BBCko eta La Voz de América-ko programak– eta meditazioari esker bakarrik gorde ahal izan nuen indarra eta lortu nuen mingostasunari, sufrimenduari eta bakardadeari aurre egitea."

Aung San Suu Kyiren irmotasun hori iritzi publikoak 1991ean aitortu zuen Bakearen Nobel Saria eman ziotenean. Semeak jaso zion saria, Aung San Suu Kyi etxean baitzegoen giltzapean (1995eko uztailaren 10era arte egon zen egoera horretan). Emakume honen istorioa, herri birmaniarraren istoriotik bereiz ezin daitekeena, itxaropenaren eta askatasunaren aldeko borroka da.

Historia de Josefa

• Izen-deiturak	Josefa Mena Villegas.
• Adina	64 urte.
• Sorlekua	Perú.
• Argazkian zein lekutan dago?	Bere etxean, Piuran (Peru).
• Familia	Ezkongabea eta 5 seme-alaba.
• Lana / ardura	Sukaldaria, emagina, emakumeentzako trebakuntza-ikastaroen irakaslea.
• Ezaugarri fisikoak	Begi handiak, garaiera txikia eta azal beltzarana.
• Bere izaeraren ezaugarriak	Indartsua, urduria, jatorra eta gogorra.
• Bere bizitzako gertaera garrantzitsuenak	<ul style="list-style-type: none"> • Etxaldean esklabo-erregimenean bizitako urteak. • 1984ko Peruko nekazaritza-erreforma • José Antonio, Paco eta Juanekin topatzea.
• Kezka edo oztopo nagusiak	• Pobrezia, analfabetismoa eta nekazarien esplotazioa.

¿Quién es Josefa Mena Villegas?

Argazkiko emakumearen izena Josefa Mena Villegas. Duela 64 urte jaio zen Piuran, Peruren kostaldeko hiri txiki batean. Utz diezaiogun Josefari berari bere istorioa kontatzen.

"Josefa Mena Villegas izena dut eta nekazaria naiz. Paroparado baserrian jaio nintzen, Romero jaunen etxalde handian; han bizi ziren nire gurasoak, han jaio nintzen ni, nire anai-arrebak... Zazpi edo zortzi urte nituela hasi nintzen aitarekin lanean. Aita mandazaina zen. Nik kotoia ateratzen laguntzen nion. Zazpi urterekin astoak akuilatzeko eta sorbaldan kotoi-zaku bat eramateko gai nintzen. Lan asko egiten genuen, oso pobreak baikin. Ia ez genuen jateko adina ere, etxalde horretan ez baitzen ia ezer irabazten. Etxean ez genuen oherik, ezta eserlekurik ere. Ni oinetako gabe eta txaplatez betetako arropekin ibiltzen nintzen, ez baikenuen ez jateko, ez janzteko...ez genuen tapakirik ezagutzen eta zakuz estaltzen ginen.

Egia esan lotsa ematen dit, baina nik horrela esaten dut hori izan baita nire bizitza... pobrezian hazi naiz... orain ohartzen naiz. Lehen ez nintzen ohartzen, itsu modukoa nintzen, gorra nintzen, ez nekien ezer. Ez gintuzten eskolara eraman, nagusiei ez zitzaielako komeni guk irakurtzen eta idazten jakitea, geu babestu ahal izateko. Orain horrela esaten dut badakidalako nola den, baina lehen gauza horietan ez genuen pentsatu ere egiten, lan egiten bakarrik bizi ginen, lan egiten bizi guztia.

Animalia txikiak bezala ginen, animaliak guztiz; egun guztia lanean seietatik gaueko bederatziak arte. Horrela bizi izan ginen nekazaritza-erreforma iritsi zen arte. Orduan aske bihurtu ginen... nagusiak joan egin ziren. Ene! Guretzat lasaigarria izan zen, jada aurretik ibili gabeko bideetatik baikebiltzan, jada ez genuen burua jaitsi behar nagusia ikustean: orduan burua tente genuela ibil gintezkeen. Libre ginen."

Nekazaritza-erreforma Perura iritsi zenean, nekazarion bizitza aldatu egin zen. Latifundista garrantzitsuenak izan ziren lursailak nekazarien artean banatu ziren. Lehenengo aldiz lursailen jabetza zuten.

"Nik orduan 40 urte nituen. Ez nengoen ezkontuta, baina bost seme-alaba nituen. Baina nik ezer ez nekiela sentitzen nuen: ez nekien ez irakurtzen, ez idazten, bi jatordu bakarrik nekizkien prestatzen... eta berrogei urte nituen. Zera esaten nuen: "Jainko maitea" Zergatik ez dakit ezer? "Baina nik ikasi nahi nuen."

Josefak sekula ez zuen pentsatu bere bizitza hainbeste aldatuko zela. Nekazaritza-erreformaren ondoren, etxe batean sukaldari-lana eskaini zioten; han Nekazarien Ikerketa eta Sustapen Zentroko (CIPCA) hiru kide bizi ziren. Ia esklabo moduan bizitzera ohituta, zeharo harritu zion berdintasunez tratatzea. Orduan, bizitza berri bat hasi zuen. José Antonio, Juan eta Pacok, CIPCAko hiru jesuita laguntzaileek, ordura arte ezagutzen ez zuen mundua erakusten joan zitzaizkion.

"Irakurtzen eta idazten irakatsi zidaten, nik ez nintzela gai izango pentsatu arren. Niretzat oso zaila zen irakurtzen ikastea! Zera esaten nuen: Zergatik ez dit sukarrak ematen irakatsi behar didaten egunean? Eta horrela egun bat, eta bestea... Orain badakit irakurtzen eta idazten."

Josefak irakurtzen ikasi zuenean, CIPCA parte hartzeko eskatu zioten. Inork baino hobeto ezagutzen zituen justizia- eta askatasun-bide berriak irekitzeko ilusioz bere esperientzia entzuten zuten 300 emakumeren arazoak.

'Chepak', horrela deitzen diote bere lagunek, dagoeneko 64 urte ditu.

"Orain argi ikusten dut nire bidea: nire bizitza guztiz aldatu da eta adorez sentitzen naiz, eta horrek poz handia ematen dit. Berrito jaio naizela sentitzen dut. Irakurtzen eta idazten ikasi nuen, nire seme-alabak hezi nituen eta orain nire bilobak hezten ari naiz. Emagin-lanbidea ikasi nuen eta, gainera, sukaldari gisa lanean hasi nintzen. Badakit zenbait gauzatarako balio dudala."


"Lehen landako indioak ginela pentsatzen genuen, inor ez ginela. Baina orain badakigu guk ere eskubideak ditugula, zuriek duten guztia guk ere badugula; alde bakarra gu pobreak izatea da."

Egun oraindik, emakume honek gizartean lanean dihardu: Josefak Nekazarien Ikerketa eta Sustapen Zentroarekin (CIPCA) egiten du lan emakume nekazariei trebakuntza-ikastaroak ematen.

Historia de Santiago Manuín

• Izen-deiturak	Santiago Manuín.
• Adina	42 urte.
• Sorlekua	Kuit komunitatea, Marañon Garaiko oihana (Peru).
• Argazkian zein lekutan dago?	Bere etxean, oihanean.
• Familia	Ezkonduta dago, Angélicarekin, eta 8 seme-alaba ditu.
• Lana / ardura	Bere komunitateko apua (buruzagia, liderra).
• Ezaugarri fisikoak	Garaiera txikikoa eta gorpuzkera sendokoa.
• Bere izaeraren ezaugarriak	Irrotasuna eta harrotasuna.
• Bere bizitzako gertaera garrantzitsuenak	<ul style="list-style-type: none"> • Komunitateetatik koka errotik ateratzea. • Lursailak izendatzeko proiektua abian jartzea.
• Kezka edo oztopo nagusiak	<ul style="list-style-type: none"> • Zur- eta petrolio-enpresak, oihanaren eta hango komunitateen oreka ahula mehatxatzen baitute.

Nor da Santiago Manuín?



Peruren iparraldean, Ekuadorrekin mugan, aguaruna eta huambisa indigenak bizi dira mugak egin baino askoz lehenagotik. Santiago Manuín, argazkian ikusten duzuen gizona, aguaruna etniakoa da (herri jibaroko familietako bat) eta duela 42 urte jaio zen kuit komunitatean, Marañon Garaiko oihanean (Peru). Garaiz utzi zuen komunitatea eta Santa María de Nievako Lehen Hezkuntzako Eskolara joan zen ikastera. Herri horretara joaten da hainbat lekutako jendea. Lehen hezkuntzako ikasketak amaitu ondoren, Santiago Cenepa ibaira joan zen bizitzera, eta han zazpi urtez prestatu zen bere herriaren buruzagi izan ahal izateko. Urte horietan ezagutu zuen Angélica, eta laster egin zen bere emazte. Angelica huambisa da eta ez aguaruna, baina hori ez zen familia bat osatzeko eragozpena izan. Jibaroen artean ohitura den bezala, Santiago joan zen Angélicaren komunitatera bizitzera, Gonzalo Villara. Han beren familia osatu zuten: sei seme-alaba izan zituzten eta geroago beste bi haur adoptatu zituzten.

Santiago uste sendoko gizona da eta karisma handikoa, eta horretaz ohartu ziren bere komunitatean. Hain zuzen, horregatik izendatu zuten apu, komunitateko buruzagi, alegia. Apu izendatzean, Santiago Aguaruna eta Huambisa Kontseilura joaten hasi zen. Erakunde horrek aguaruna-huambisa komunitate gehienak biltzen ditu; hau da, 20.000 lagun inguru bizi diren 120 komunitate inguru. Indigenen eskubideak defendatzeko egiten zuen lanagatik Batzarrak Kontseiluaren lehendakari izateko aukeratu zuen 1991. urtean. Orduan komunitateentzat une delikatua eta arriskutsua bizi izan zen. Deforestazio-arazoak eta oihanaren ustiatze-arazoak gero eta gehiago ziren, eta horretaz gain koka-landarea sartu zuten, eta une horretan arazoak sortu ziren (narkotrafikoa hastea, ingurugiro-inpaktua, etab.). Santiagok, Kontseiluaren lehendakari zen heinean, buruzagi guztiei dei egin zien, eta guztien artean, ahalegin eta arrisku handiz, Marañoñ Garaitik koka errotik kentzea lortu zuten. Orduz geroztik, SAIPerekin –aguaruna-huambisa herria babesteko lan egiten duen Peruko GKEarekin– eta Alboanekin, Santiagok bere herriaren bizi-baldintzak hobetzeko eta betidanik bizi izan diren lursailen jabetza–legearen araberaren beraien dena– lortzeko lanean dihardu.

“Guretzat, aguaruna eta huambisentzat, lursailak oso garrantzitsuak dira. Gure arbasoek haiek lortzeko borroka egin zuten eta beren bizitza eman zuten guk, seme-alabok, haietan bizitzen jarraitu ahal izateko. Horregatik orain guk gurea dena defendatzen jarraitzen dugu. Peru izena agertu baino lehenagotik geunden gu. Gure herriaz harro gaude. Guk, jibarook, oso ondo dakigu gure lursailen mende gaudela. Baso handi hau animalia askoren aterpe da eta ibai hauetan arrain asko bizi dira. Baso honetan fruta asko daude. Gure azoka da. Natura honen mende gaudela, paradisu zoragarri honen mende, jateko, gure etxea eraikitzeko. Baina gero beste lekuetako jendea iritsi zen, ohitura desberdinekin, eta lursailak haienak zirela esan ziguten, delako estatu perutarra lursail horien nagusi dela, hark jartzen, kentzen, egiten eta arautzen dituela legeak. Guretzat ustekabea izan zen. Guk nagusia Jainkoa zela uste genuen.

Jende iritsi berri hori, lursailak beraienak direla esan ondoren, basoa harrapakatzen hasi zen, zura ateratzen, ibaiak zikitzen, lurzorua zulatzen petrolioa delako likidoa aurkitzeko, ibaietan hondar artean urrea izeneko beste pieza batzuen bila hasi zen. Lurzoruaren barruan dagoen guttia atera eta basoak moztu ondoren, alde egiten dute.

Horregatik guk orain Jainkoak bizitzeko, jateko eta hiltzeko eman ziguna defendatu nahi dugu. Benetako jabeak gu izanik, Peruko estatuari jabetza-titulu izeneko paperak eskatu behar dizkiongu. Paper hori ematean “lurra zurea da” besterik ez dute esaten. Noski gurea dela, hori badakigu. Horregatik kontzientziaz egiten dugu borroka. Bada beste tokietatik etorri eta gurekin elkartzen den jendea, gurea dena aldarrikatzeko. Beste pertsonen handinahiagatik mehatxatutako lurra galtzen badugu, jibarook herri moduan desagertu egingo gara. Desagertutako, izenik gabeko, hainbat herritako bat izango gara. Hori ez gertatzea espero dut.”



Dokumentazio osagarria

Amani Taldetik hartua, 1994

Zer dira estereotipoak?

Talde bateko kideen irudi bat da, sinplifikatua eta gizartean partekatua, eta irudi horregatik pertsoneri ezaugarriak (positiboak edo negatiboak) jartzen dizkiegu talde bateko kide diren heinean eta ez banakako pertsona bezala.

Adibidez: "kataluniarrek diruzaleak dira"
 "andaluzak alferrak dira"
 "madrildarrak harroputzak dira"


Nolakoak dira estereotipoak?

Estereotipoek, batez ere, ezaugarri hauek dituzte:

- Aldaketak oso ondo jasaten dituzte. Gezurtatzen dituzten frogak egon arren, berdin jarraitzen dute: esaterako, estereotipoa "emakumeek gaizki gidatzen dute" bada, eta ondo gidatzen duen emakume bat ezagutzen badugu, salbuespen bat dela pentsatuko dugu.
- Estereotipoarekin bat datorren informazioa errazago gogoratzen dugu: esaterako, aurreko kasuarekin jarraituz, egunean zehar gaizki gidatzen duen emakumeren batekin topo egiten badugu, gertaera hori gogoratuko dugu. Agian "emakumea izan behar zuen" esaldia-ekin gogoratuko dugu, nahiz eta beste egoera askotan emakume gidari onak topatu.
- Errealitatea sinplifikatzen dute, ezaugarri bat talde osoari orokortzean: esaterako, "aragoiarrak burugorrrak dira" esaten badugu.
- Informazioa zalantzazkoa bada, osatu egiten dute: esaterako, "ijitoak trafikatzailleak direla" pentsatzen badugu, eta kalean ijito-talde bat ikusten badugu, droga pasatzen ari direla pentsatzeko joera izango dugu.
- Itxaropenak bideratzen dituzte: esaterako, "magrebtarrek lapurtu egiten dutela eta arazoak ematen dituztela" pentsatzen badugu, eta magrebtar bat autobusean gugandik hurbil eseritzen bada, lapurtu egingo digun beldurra senti dezakegu.

Nola eragiten dute gugan estereotipoak?

Estereotipoek hiru osagai dituzte: kognitiboa, emoziozkoa eta konatiboa; hau da, estereotipo bat aplikatzean, pentsatu eta sentitu egiten dugu eta ekintza bat gauzatu. Esaterako:



Osagai konatiboa (gure jarrera) portaera diskriminatzaileetan ikusten da, aurreiritziak jokatzen duenean, eta hainbat modutakoa izan daiteke: jarrera negatibo zehatzak, hizkuntza erasotzailea jarrera eta keinuekin... Baina, horiek saihesterakoan, ohartu behar dugu jarrera hori estereotiputako pentsamendu batek eragiten duela, eta sentimendu bat sortzen duela eta horren aurrean ekintza bat gauzatzen dugula. Prozesu horretaz jabetzen bagara, pertsona askorekin bidegabe jokatzea saihestuko dugu.

Nondik datoz estereotipoak?

Estereotipoak hainbeste lagunek partekatzearen arrazoia ulertzeko, gure balioak eta gainerakoak ulertzeko dugun modu zehatza eratzen duten hiru gizarte-eragileri buruz hitz egin behar dugu: familia, eskola eta komunikabideak.

Familian gizarte-nortasuna hartzen dugu (gizarte-talde zehatz bateko parte gara) eta, gainera, gugandik desberdinak diren pertsoneri modu jakin batera begiratzen ikasten dugu: desberdinen aurrean kokatzen gara. Ikaskuntza hori, batez ere, gurasoengandik transmititzen da.

Eskola ere ez da neutrala. Familiak bezala, balioak transmititzen ditu, eta haren eragina garrantzitsua da 'beste desberdinak' ikusteko moduari dagokionez. Eskolan balioak transmititzen dira, alde batetik, esplizituki, ematen diren edukien bitartez, eta, bestetik, inplizituki, hau da, ezkutuko curriculumaren bitartez: ikasleen antolaketa gelan; haien arteko harremanak; irakasleen eta ikasleen arteko harremanak; ikastetxean gehien baloratzen diren jarrerak, etab. Esate baterako, ez da gauza bera talde-lanen bidez elkarlana sustatzea edo banakako lana eta gaitasunak baka-rrik baloratzea.

Komunikabideei dagokienez, atal honetan, telebista, prentsa, irratia, liburuak zein komikiak sartzen ditugu. Sozializazio-bitarteko horiek, batez ere ikus-entzunezkoek, gure bizitzan gero eta zeregin handiagoa dute. Telebistako programak, filmak, albistegiak eta abar mundua ikusteko modu zehatzeko eredu beteta daude.

Artikulugileak erantsitako balorazio subjektiboa:

Pertsonaren deskribapena:

- Izenburuan, itotakoa gizon 'arrunta' ez dela zehazten da, sasoikako langile portugesa baizik.
- Berriaren hasiera: "sasoikako langile portugez bat (...), atzo hil zen", hildakoa sasoikako langilea eta portugesa dela nabarmenduz.

Mezu inplizituak:

"Hildakoa sasoikako langile portugesa zenez agian pobrea eta ezjakina zen eta haren axolagabetasunak itotzea eragin duelako hil da".

Zuen balorazioa prentsa-zuzentzaile zareten heinean**Azterketarako galderak:**

- Zein informazio ematen du berriko protagonistaren nazionalitateak eta lanbideak? Irakurleari aurrez zerbait ematen al dio aditzera? Zein eratan?
- Demagun gertaera hemengo pertsona bati gertatu zaiola. Irakurri berria 'sasoikako langile portugesa' ren ordeztu 'Tuterako arkitektoa' erabiliz. Zer egiten zaizu deigarri?, kasu horretan horrela emango al zen berria?
- Idatzi berriro izenburua protagonistaren nazionalitatea eta lanbidea kenduta eta informazio hori berriaren amaieran jarrita informazio osagarri moduan. Zein aldaketa gertatu da berrian? Ezinbesteko den zerbait kendu al da?
- Berria idaztearen ardura zuk izango bazenu, nola idatziko zenuke izenburua? Zergatik?

2. berria

SUCESOS

Tres detenidos acusados de robo con violencia y robo con fuerza

I. R. L.

SAN SEBASTIAN.— Varios agentes de la Guardia Municipal de San Sebastián detuvieron a los jóvenes marroquies M.A. y M.B.A., de 15 y 17 años, respectivamente, acusados de agredir y robar a dos ciudadanos de nacionalidad alemana, según informó este cuerpo policial.

Al parecer, los marroquies se acercaron a los turistas en compañía de otros tres jóvenes para pedirles dinero en la zona de la Parte Vieja de la ciudad en la noche del martes. Cuando los alemanes extrajeron la cartera, los presuntos delincuentes propinaron un puñetazo a uno de los turistas, apoderándose de la cartera y de una cámara fotográfica. Posteriormente, ambos jóvenes fueron identificados y detenidos por la Guardia Municipal.

Por otra parte, también durante la madrugada del día 25 de julio, fue detenido en el barrio donostiarra de Loyola L.T.L., vecino de esta ciudad de 28 años, acusado de robar en el interior de dos vehículos estacionados.

Iturria: El Mundo, 2000ko uztailearen 27a.

Azterketarako giltzarriak

Albiste egiteko moduko gertaera: Hiru akusatu atxilotu dituzte indarkeriaz lapurtzeagatik eta bat bi automobilen barruan lapurtzeagatik.

Artikulugileak erantsitako balorazio subjektiboa: Lagunen deskribapena:

Erasotzaileak	Erasoa pairatutakoak
M.A. eta M.B.A., 15 eta 17 urtekoak	Ez da ez izenik, ez adinik adierazten
Gazte marokoarrak	Nazionalitate alemaniarreko hiritarrak
Marokoarrak	Alemaniarrek
Ustezko delitugileak	Turistak
Hiri honetako biztanlea (2. erasotzailea)	

Mezu inplizituak:

Lagunen deskribapena: *"Bi gazte marokorrek, beste behin, arazoak sortu dituzte: pobreak dira, zakarrak eta pertsona 'normalen eta errespetagarrien' aurka delitu egiteko joera dute; esaterako, lasai asko inori molestatu gabe, turismo egiten ari ziren 'nazionalitate alemaniarreko hiritarren' aurka."*

Azterketarako galderak

- Erasotzaileak 'gazte marokoarrak' direla esaten da eta eraso pairatu dutenak 'nazionalitate alemaniarreko hiritarrak', ageri al da bi taldeak tratatzeko forma desberdinik? Zergatik? Eta bukaeran dagoen bigarren berriari dagokionez, nola deskribatzen zaio ustezko lapurrari? Zein desberdintasun du lehenengo deskribapenarekin?
- Idatzi berriro berria bi gizabanakoei berdintasunezko tratua emanez, balorazio subjektiborik egin gabe eta gertatutakoa zintzo kontatuz. Zein alderdi zehatz aldatu dira berria berriro idatzi ondoren?

3. albiste

Arrojan un cóctel molotov a la casa de un marroquí en Soria

■ La Guardia Civil detuvo ayer a C.M.G, de 21 años y vecino de Almazán (Soria), por incendiar presuntamente la casa en la que reside un inmigrante marroquí, informó ayer la Guardia Civil. El detenido arrojó un cóctel molotov contra la puerta del domicilio en el que reside un ciudadano marroquí que ocasionó un pequeño incendio que fue sofocado por los vecinos. El detenido declaró que había recibido amenazas del inmigrante. Efe

Fuente: *Diario de Navarra*, 5 de junio de 2000.

Azterketarako giltzarriak

Albiste egiteko moduko gertaera: Almazaneko auzotar batek herri bertako etxebizitza bati egindako eraso.

Artikulugileak erantsitako balorazio subjektiboa: Lagunen deskribapena:

Erasotzaileak	Erasoa pairatutakoak
C.M.G.	Ez da bere izenik agertzen
Almazaneko auzotarra	Etorkin marokoarra
Atxilotua	Etorkina

Mezu implizituak:

"Auzotarra seguruenik etorkinak egindako mehatxuetatik babestu da; izan ere, etorkinak mafiekin eta legez kanpoko trafiko-sareekin, drogekin eta delitu-jarduerekin lotuta egoten dira".

Azterketarako galderak

- Zergatik zehazten da izenburuan eraso pairatutako etxea 'marokoar batena' zela? Informazio garrantzitsua al da gertaerarekiko?
- Azterketarako giltzarrietako taulako bi lagunaren deskribapena kontuan hartuta, berdintsua al da bati eta besteari buruz emandako informazioa?
- Azken lerroan erasotzaileak eraso jasandakoaren mehatxuak jaso zituela esaten da; baina ezagutzen al dugu azken horren bertsiorik?
- Idatzi berriro berria bi gizabanakoei berdintasunezko tratua emanez, balorazio subjektiborik egin gabe eta gertatutakoa zintzo kontatuz. Zein alderdi zehatz aldatu dira berria berriro idatzi ondoren?

Un grupo de magrebíes intenta, sin éxito, entrar en tropel por Melilla

CARLOS CAMPAÑA
Corresponsal

MELILLA.— A sólo unas horas del vencimiento del plazo marcado por el Gobierno para la regularización documental de los *sin papeles* en España, un número indeterminado de inmigrantes subsaharianos fue avistado a primera hora de la mañana de ayer por la Guardia Civil cuando se disponían a entrar, previsiblemente en avalancha, a través del paso fronterizo del Barrio Chino.

Este nuevo intento por llegar a España en tropel, el tercero de estas características que tiene lugar en los últimos 15 días, fue abortado por los propios inmigrantes que, en el último momento, se percataron de la importante presencia de efectivos de la Guardia Civil al otro lado de la frontera. En este sentido, en los dos casos anteriores sí se produjeron entradas de *sin papeles*, si bien, la mayor parte fueron detenidos y entregados a las autoridades marroquíes.

«Ellos intentarán entrar y nosotros, que no entren», comentó resignado el delegado del Gobierno en Melilla, Arturo Esteban, que añadió a un grupo de periodistas: «Necesariamente tendremos que acostumbrarnos a vivir con el fenómeno de la inmigración».

Por otra parte, fuentes policiales consultadas por EL MUNDO hicieron hincapié en la presencia de una bolsa de inmigrantes en las cercanías de Melilla, que aguarda un despiste de la Guardia Civil para cruzar la doble valla de seguridad que se extiende a lo largo de los 10 kilómetros de frontera terrestre con Marrue-

Proceso «convulso»

Preguntado por el proceso de documentación de los inmigrantes, Arturo Esteban, que reconoció que inicialmente fue «convulso», especialmente «porque esas estructuras —de la Administración— no estaban debidamente preparadas», indicó que «las cosas han ido razonablemente bien» en la Oficina de Extranjería puesta en marcha por la Delegación del Gobierno para tramitar las peticiones de los extranjeros.

Asimismo, el delegado del Gobierno en Melilla indicó: «Ha sido una avalancha de personas que esperábamos, pero que no ha sido más intensa de lo que creíamos», dijo.

■ La Guardia Civil detuvo ayer en Algeciras (Cádiz) a un marroquí por un presunto delito contra el derecho de los ciudadanos extranjeros, al transportar en un vehículo a un compatriota indocumentado, y ha interceptado a siete marroquíes y un argelino en el Campo de Gibraltar.

Azterketarako giltzarriak

Albiste egiteko moduko gertaera: Marokoko hiritar-talde bat Espainian sartzen saiatu zen.

Artikulgileak erantsitako balorazio subjektiboa: *Etorkinen etorreraren deskribapena:*

• Samaldan sartzea.	• Piloan sartzea.
• Paperik gabekoak	• Espainiara samaldan sartzea.
• Guardia Zibila oharkabetu zain daude sartzeko.	• "Haiek sartzen saiatuko dira eta gu haiek sar ez daitezten."
• Segurtasun-hesia.	• Etorkinen poltsa bat dago gertu.
• Jende-olde bat izan da.	• "Derrigor ikasi beharko dugu immigrazioarekin bizitzen."

Mezu inplizituak:

"Badirudi etorkinen etorrera inbasio modukoa dela eta babestu egin behar gara".

Azterketarako galderak

- Etorkinei askotan 'paperik gabekoa' deitzen zaie, gutxiesgarria iruditzen al zaizu termino hori?
- Idatzi berriro berria, balorazio subjektiborik egin gabe eta gertatutakoa zintzo kontatuz. Zein alderdi zehatz aldatu dira berria berriro idatzi ondoren?





8. jarduera



Galderak

Taldeentzako lana

1

Prentsan immigrazioaren gaia jarraitzea proposatzen dizuegu. Horretarako, talde bakoitza egunkari batez arduratuko da (eremu zabalagoa hartzeko), esaterako: 1. taldeak, Egunkaria; 2. taldeak, Gara; 3. taldeak, Deia, 4. taldeak, herriko edo eskualdeko egunkaria.

2

Lehenik eta behin, eta banaka, moztu immigrazioari buruz egunkarian agertzen diren testuak (jarraipena egun batzuetan zehar egin behar da emaitzaren bat eskuratzeko). Behin materiala bilduta, sailkatu testuak honako gaika:

- Legeria (Atzerrikotasunari buruzko legea, administrazioa, etab.).
- Gertaerak (delituzko ekintzak, indarkeria eta xenofobia).
- Etorrerak (herrialdera etorrerak, etorkinen trafiko-sareak, etab.).
- Bizi-baldintzak (lana, etxebizitza, osasuna, eskolatze-aldia, etab.).
- Ohiturak eta kultura (eguneroko bizitza, testigantza zuzenak).
- Asoziazionismoa (integrazioa, etab.).

3

Dagoeneko baduzue prentsa-*dossier*a prest. Orain, erantzun galderari bakarka.

4

Hitz egin erantzunen inguruan taldeko ikaskideekin, eta adostu erantzunak gainerako ikasleei haien berri emateko. Idatzi etorkinez komunikabideetan ematen den irudiari buruz duzuen iritziaren azken ondorioa.



Bakarka erantzuteko galderak

1. Zein irudi ematen dute komunikabideek gutxiengoez, errealitatearekin alderatuta?

- Errealitatea baino txarragoa da. Errealitatea baino hobea da.
 Errealitatearen nahiko antzekoa da. Errealitatearen berdin-berdina da.
 Bestelakoa.

2. Komunikabideek sarri ematen al dituzte gutxiengo etnikoekin lotutako albisteak?

- Bai, sarritan. Ez, gertaera isolaturen bat gertatzen denean baino ez.
 Inoiz ez.

3. Jarri ordenan honako gaiak atzerritarrekin lotutako berrietan ateratzen diren maiztasuna kontuan hartuta.

- Delinkuentzia / Indarkeriazko ekintzak. Mafiak eta legez kanpoko immigrazio-sareak.
 Emigratzaileen egoera larria (lana, etxebizitza).
 Drogak.
 Bestelakoak.

4. Gutxiengo etnikoei buruzko albisteak haiek beraiek kontatzen dituzte.

- Inoiz ez. Inoiz ez. Batzuetan. Beti.

5. Albiste horiek jarrera arrazistak sustatzen eta aurreiritziak azpimarratzen dituzte.

- Bai, beti. Inoiz ez. Inoiz ez. Ez, inoiz ez.

6. Kazetari gisa, nola egin daiteke aurre gutxiengoenganako arrazismoari?

- Gutxiengoei buruzko albiste negatiboak ezkutatu.
 Gutxiengoei buruzko albisteak zuzentzeko tratatu.
 Gutxiengoei komunikabideetara sartzea erraztu.
 Gutxiengoko kideak direla ahaztu.

7. Ba al du irakurleengan eraginik kazetariaren iritziak berria idazterakoan?

- Bai, eta horregatik kontuz ibili behar dute beren iritzia azaltzerakoan.
- Berri batean ez du egilearen iritziak agertu behar.
- Bai, baina kazetariak beti adierazi behar dute beren iritzia.
- Ez dut uste iritziak irakurleengan eraginik izango duenik.

8. Aukeratu protagonisten nazionalitatea nabarmentzen den izenburuak, zer eragin dute irakurleengan?

- Gertaeraren atentzioa sakabanatu egiten du.
- Zuzenean lotzen edo identifikatzen dute kontatutakoa protagonistaren sorlekuarekin.
- Gutxiengo horrenganako elkartasuna eta ulermena pizten ditu.
- Talde osoari buruzko informazioa ematen du.

9. Albisteei edo gertaerei bakarrik erreparatuta, adierazi, gertakarien ordena kontuan hartuta, gehien errepikatzen diren hiru gertaera problematiko.

.....

.....

10. Lehentasuna kontuan hartuta, zenbakitu gehien nabarmentzen diren hiru faktore edo alderdi:

- Gertaera zehatz batzuen, ia beti problematikoen, kontaketa.
- Emigrazioaren arrazoiaren azterketa.
- Emigratzaileen egoera pertsonala (osasungintza, familia, eskolatzea, kultura...).
- Azaldutako arazoetarako konponbideak.
- Atzerrikotasunari buruzko legearen eta estatuaren egintza-eremuari buruzko informazioa.
- Hainbat arrazatako pertsonen kulturen arteko eta elkarrekin bizitako esperientzien ekarpenak.

11. Testu-multzotik bildu emigranteak egoteak dituen alderdi aberasgarriak aipatzen dituzten testuak.

.....

.....

12. Gutxiengo horien zein beste alderdi positibo bururatzen zaizkizu, komunikabideetan ez egon arren?

.....

.....



Dokumentazio osagarria

Immigrazioa eta Arrazismoa Azterlana: CIPIE Fundazioak, Immigrazioaren Behatoki Iraunkorrak, Espainiako prentsari buruz, 2000ko lehen hiruhilekoan, egindako azterlana, eta Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak, Gizarte Gaietarako Idazkaritza Nagusiak eta Migrazioetarako eta Gizarte Gaietarako Institutuak argitaratua.

<http://www.eurosur.org/CIPIE/1tri2000/prensa>

Aztertutako egunkariak

El País	El Correo de Andalucía
El Mundo	La Vanguardia
ABC	El Correo (Vizcaya)
Levante EMV	La Verdad de Murcia
El Heraldo de Aragón	Canarias

Bildutako eta sailkatutako albisteak 2.190

Albisten sailkapena gaika. Kopurua eta ehunekoak

Gaiak	Azpigaiak	Albiste-kopurua	%
Administrazioak: legeria eta ekimenak	Administrazioaren ekintzak	61	2,60
	Mugako kontrolak	57	2,43
	Immigrazioa eta hauteskunde-kanpaina	41	1,75
	Arreta burokratikoa	37	1,58
	Asiloa Espainian	20	0,85
	Kanpo-politika	19	0,81
Guztira		235	10,02
Atzerrikotasunari buruzko lege berria	Indarreen sartzea eta ondorioak	207	8,84
	Artikuluak. Editorialak	36	1,53
	Arma politiko moduan erabiltzea	27	1,15
Guztira		270	11,52
El Ejidoko gertaerak	Iritzi-artikuluak. Editorialak	145	6,19
	Albo-albisteak eta erantzunak	135	5,76
	Bakealdirako itunak eta negoziazioak	119	5,8
	Eztanda xenofobia eta istiluak	116	4,95
	Irakurleen eskutitzak	36	1,53
	Aurretiko istiluak eta gertaerak	28	1,19
Guztira		579	24,7

Albisten sailkapena gaika. Kopurua eta ehunekoak			
Gaiak	Azpigaiak	Albiste-kopurua	%
Indarkeria, xenofobia eta bestelako gertaerak	Sareak, mafiak eta etorkinei maulak	119	5,8
	Immigrazioa eta delinkuentzia	78	3,33
	Ekintzak eta indarkeria xenofoboa	51	2,17
	Etorkinenganako indarkeria	46	1,97
	Jarduera eta antolaketa xenofoboak	23	0,98
Guztira		317	14,52
Gizarteratzea	Etxebizitza- eta ostatu-arazoak	56	2,39
	Adin txikikoak, eskolatzea eta moldatu ezina	48	2,05
	Esperientzia personalak, eguneroko bizitza	45	1,92
	Lan-baldintzak. Nekazaritzaren mundua	41	1,75
	Osasun-arreta	28	1,19
Guztira		218	9,3
Elkartasuna, salaketak eta jarduerak	Gizarteko erakundeen salaketak	119	5,08
	Iritzi-artikuluak eta editorialak	85	3,63
	GKEen ekintzak eta jarduerak	74	3,16
	Umore grafikoa	73	3,11
	Irakurleen eskutitzak	42	1,79
Guztira		393	16,77
Argitaratutako bestelako gaiak	Paterak eta ezkutuko bidaiariak	119	5,08
	Txostenak, azterketak eta datu estatistikoak	50	2,13
	Errumaniar taldea Madrilen	44	1,88
	Eskutitzak eta artikuluak tonu insolidarioan	22	0,94
Guztira		235	10,03

Iturria: Fandiño, 1993.



Iturria: Fandiño, 1993.

Aurreko datuen laburpena

Administrazioak:	505	22,01%
<ul style="list-style-type: none"> • Legeria, gobernuaren ekimenak • Atzerrikotasunari buruzko legea 		
Gertaerak:	1.134	49,43%
<ul style="list-style-type: none"> • Indarkeria, xenofobia, delinkuentzia • El Ejido • Paterak eta ezkutuko bidaiariak • Sareak, mafiak eta etorkinei maulak 		
Bizi-baldintzak:	262	11,42%
<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitza-, lan- eta osasun-arazoak • Esperientzia pertsonalak • Errumaniar taldea Madrilen 		
GKE, erakundeak eta partikularrak:	393	17,13%
<ul style="list-style-type: none"> • GKEen eta erakundeen salaketa eta ekintzak • Irakurlearentzako eskutitzak, iritzi-artikuluak, editorialak eta txistek 		
GUZTIRA	2.294	

Azterketa horretatik honakoa azpimarra daiteke:

- Prentsan gertaera isolatuekin lotutako informazio-kopurua berri guztien % 49'5 da.
- Aipatzekoa da, baita ere, ia ez dagoela emigratzaileekin lotutako berri 'positiborik' edo alderdi aberasgarriak adierazten dituztenik.
- Gertaera isolatuez gain emigrazioaren arazoien azterketari leku gutxi ematen zaio, eta ia beti negatiboak diren gertaeren berri-kopurua oso handia da. Horren ondorioz, migrazio-fenomenoa ia beti arazoekin eta alderdi negatiboekin lotzen da.
- Migrazioari buruz informazio asko eman arren, ia ez dago emigratzaileek beraiek zuzenean kontatutako berri edo artikulurik.
- Talde horiek bizi duten egoera zailari buruz prentsan informazioa etengabe dagoenez, iritzi publikoek gehiago dakite eta sensibilizazio handiagoa dute emigrazioaren arazoaren inguruan.



9. jarduera



Iritzi-artikulu bat idazten

Immigrazioa Espainian: arazoak eta aukerak

1

Iritzi-artikulu bat idaztea proposatzen dizuegu. Gaia: "Espainian emigranteak egoteak ematen dituen arazoak eta kultura aldetik aberasteko eta pertsona desberdinekin bizitzen ikasteko ematen dizkigun aukerak". Agian ez dugu izango azken galdera hori egiteko ohi-turarik... baina egin beharra dugu egoeraren benetako ikuspegia edukitzeko.

Artikuluaren zuen iritzia adierazi behar duzue, baina horretarako, lehenbizi, eskaintzen dizuegun dokumentazio osagarriaz baliatu gaiaren inguruan informazioa biltzeko.

Informazio hori zabal dezakezu honako egunkarietako Interneteko orrietan begiratu: *Egunkaria*, *Gara*, *Deia*, etab.

<http://www.egunkaria.com> • <http://www.gara.net> • <http://www.deia.com>

Artikuluaren idazteko gogoratu honako urrats hauek:

2

1. Idatzi defendatu nahi duzun tesia laburtuko duen esaldi bat, gogoratu zehatza, argia eta pertsonala izan behar duela! Esaldi hori zure zirriborroaren buru izango da idazterakoan gaitik besteratu edo nahas ez zaitez. Hausnartu eta pentsatu zure ustez zergatik den positiboa immigrazioa. Saiatu topikoak ez erabiltzen.
2. Bilatu idatziaren oinarri izateko hiru argumentu, eta bilatu idatzitakoari objektibitatea emango dion datu zehatzen bat (hainbat dokumentutatik bil dezakezu egokia edo deigarria iruditzen zaizun informazio zehatza). Immigrazioaren aurkako iritziren bat edo iritzi orokorturen bat ere eztabaida dezakezu.
3. Prestatu gidoi bat zure iritzi-artikuluaren egitura edo progresio tematikoa adieraziz. Badakizu aukerak zabalak direla; egitura deduktiboa aukera dezakezu, induktiboa, enkoadratua, errepikakorra, etab. Ondoren, pentsatu testuari kohesioa emateko zein diskurtso-lokailu edo -markatzaile nagusi erabiliko dituzun. Zure iritzia defendatzen ari zara!
4. Ez ahaztu iritzi-zutabea sinatzea, testua guztiz pertsonala eta estilo librekoa baita. Azkenean, irakasleari emango zaio.
5. Eztabaidan, idatzietan defendatutako tesi guztiak irakurriko dira gainerako ikasleen iritzia ezagutu ditzazuen.



Dokumentazio osagarria

Immigrazioa Espainian

<http://www.elpais.es> orritik hartua.

'Paperik gabeko' immigranteak Europan

Espainia Etorikin irregular gehien dituen Europako Batasuneko herrialdeetako bat da (300.000 inguru). 2000. urtean amaitutako erregularizazio-prozesuari esker, 140.000 etorkinek beren egoera legezatu zuten. Beste 60.000 lagunak eskaerak ukatu egin ziren eta berriro aztertuko dira haien kasuak

Alemania Milioi bat lagun legezatu gabe bizi direla kalkulatu da. Azken urteetako murrizketen ondoren, Schröderren gobernu gorri-berdeak lege-erreforma bat egingo duela hitz eman du, eta hori 7,3 milioi atzerritarretik hirurentzat mesedegarria izango da.

Frantzia Gobernuak identifikatutako 140.000 *paperik gabekotik* 83.000 legezatu ditu. Beste 300.000 inguru daudela kalkulatu da zenbatu gabe. 1997. urtean legezatu gabeko 7.200 etorkin erbesteratu ziren.

Italia 1999an Schengen-en eremuan sartu ondoren, atzerritar ugari izan zituen eta Gobernuak 38.000 baimeneko kupoa ireki behar izan zuen. Kupo hori zabaltzeko aukera utzi zuen. 1995. urtean 200.000 etorkin legezatu ziren amnistia baten bidez. 235.000 *paperik gabeko* daudela kalkulatu da.

Erresuma Batua Gobernuak 2000. urtean 1995. urtea baino lehen iritsitako 30.000 errefuxiatu eta asilo-eskatzaille legezatu zituen. 70.000 zirela kalkulatu da. Legez kanpoko etorkin ekonomikoak, 50.000, ez dira legezatu.

1 Europa immigrazioaren aurrean: fluxuari eustearen eta langile beharraren arteko oreka zaila

NBEk estatu kideei esan die 44 milioi etorkin hartu beharko dituztela beren hazkundeari eutsi eta pentsioak bermatu ahal izateko.

Europako Batasuneko kide diren estatuetan immigrazio-eskubideak eta asiloari buruzko legeak oso desberdinak dira herrialde batetik bestera. NBEk Europari immigrazioari ireki beharra dagoela esan dio bere hazkundeari eutsi eta pentsioak bermatu ahal izateko. Hain zuzen, Eurostaten arabera, Europak 44 milioi etorkin behar ditu 2050. urtera arte larrialdi hori gainditzeko.

Ohartarazpen hori egin arren, ELGAren ondorengo txosten batean immigrazio-politiketan neurri gogortzaileak antzeman dira Europako herrialde gehienetan. Joera horrek araudi komunitario bateratu bat egiteko bidea emango du (kide diren estatu guztietan aplikatzekoa) eta hura agian 3 urte baino lehen argitaratuko da.

2000. urtean Europako Batasuneko herrialdeetara 816.000 etorkin iritsi dira, ia 1999. urtean baino 100.000 lagun gehiago. Gehienak honako herrialdeetatik datoz: Magreb, Turkia, India, Saharatik hegoaldeko Afrika eta Balkanak.

Guztira Kontinente Zaharreen 3 milioi lagun bizi direla ezkutuan kalkulatzen da; milioi-erdia Frantzia bizi da, 300.000 inguru Espainian eta beste 235.000 Italian. Arrazismoaren eta Xenofobiaren Europako Behatokiaren urteko txostenak dioenez, urtero arrazagatiko indarkeriaren, diskriminazioaren eta talde neonazien delituen kasuak gero eta gehiago dira Europako Batasuneko herrialde guztietan. Europako % 33 lagunek beren burua 'oso' edo 'nahiko' arrazistatzat dute, eta Eurobarometroaren ustetan xenofobiak gora egitearen arrazoia, batez ere, langabezia geratzeko beldurra, segurtasuna etorkizunean eta gobernuko politiken eta gizarte-baldintzen aurrean ezinegon orokorra dira.

Alemania:	7 milioi etorkin baino gehiago, 24 etorkin 1.000 biztanleko
Austria:	1 etorkin 1.000 biztanleko
Belgika:	20 etorkin 1.000 biztanleko
Frantzia:	1 etorkin 1.000 biztanleko
Herbehereak:	3 etorkin 1.000 biztanleko
Irlanda:	6 etorkin 1.000 biztanleko
Italia:	3 etorkin 1.000 biztanleko
Luxemburg:	114 etorkin 1.000 biztanleko
Portugal:	1 etorkin 1.000 biztanleko
Erresuma Batua:	2 etorkin 1.000 biztanleko
Espainia:	1 etorkin 1.000 biztanleko


Eurostaten behin-behineko datuen arabera, Espainian etorkin bat dago 1.000 biztanleko: gainerako Europako Batasunarekin alderatuta nahiko ehuneko baxua, soilik Finlandiaren eta Frantziaren tasen gainetik dago. Etorkin gehienek ezkutuko ekonomietan egiten dute lan. Gutxiago ordaintzen zaie, baldintza okerragoetan egiten dute lan eta legeak ezarritako gutxieneko soldata baino txikiagoa jasotzen dute. Askotan ez dute etxebizitza duinik izaten.

Espainia immigrante irregular gehien dituen Europako Batasuneko herrialdeetako bat da. Europan ezkutuan bizi diren hiru milioi pertsonatatik, milioi erdia Frantzia bizi da, 300.000 inguru Espainian eta beste 235.000 Italian.

2 Informazioa zifratan

Barne Ministerioaren zifra proportzionatuak kontuan hartuta, 1981. urtean Espainian 198.042 atzerritar bizi ziren, 2000. urtean, berriz, 938.783. Etengabeko bilakaera horrek gorakada handiak izan ditu hamarkadaren azken urteetan.

Grafikoa: Espainian bizi diren atzerritarren bilakaera 1989. urtetik. EBkoak direnak eta ez direnak bereizita ageri dira.



Iturria: Barne Ministerioa.

EL PAÍS.

3 Demografiaren eragina Espainian

Etorkin-taldeak Espainiako gizartean sartzean zahartze-prozesu kezkarria –Europako beste herrialdeek ere pairatzen dute– joerak aldatzea eragin du. Atzerritar asko dituzten komunitateetako jaiotza-tasa asko igo da azken urteetan, beste komunitate batzuekin alderatuta (beheraka jarraitzen dute).

Hazkunde begetatiboa Espainian (Jaiotzen eta heriotzen arteko aldea)

Biztanleria beherantz		Gorantz	
-9.565	Galizia	15.489	Andaluzia
-8.825	Gaztela eta Leon	11.152	Madril
-5.915	Asturias	5.668	Kanariak
-3.853	Aragoi	3.730	Murtzia
-2.040	Euskadi	1.230	Balearrak
-1.332	Kantabria	779	Katalunia
-837	Gaztella-Mantxa	599	Melilla
-553	Extremadura	543	Valentzia
-384	Errioxa	455	Ceuta
		136	Nafarroa
-13.577	Espainia	6.477	

Etorkinen seme-alabak kontuan hartu gabe Etorkinen seme-alabak kontuan hartuta

Iturria: EIN EL PAÍS.


4 Lana

Etorkinen lanari dagokionez, jarduera-eremu nagusiak hauek dira (garrantzia kontuan hartuta ordenan daude): nekazaritza, eraikuntza, ostalaritza eta etxeko lanak. Paperik gabeko etorkinek elikatutako ezkutuko merkatuaren banaketa bestelakoa da.


Etxeko zerbitzuak (% 23), ostalaritza (% 16) edo eraikuntza (% 15) sektoreen ondoan, talde handi samar batek (% 27) salmenta ibiltarian eta merkataritzan dihardu. % 19 delinkuentziatik edo drogen trafikotik bizi dela kalkulatu da. Zifra ofiziosoen diotenez, 20.000 etorkin inguru prostituzioan aritzen dira.

Etorkinen lana

Jarduera-sektore nagusiak




Gizarte Segurantzaren afiliatutako atzerritarrak (sorlekuko herrialdeka. 2000-06-30eko datuak)




Gizarte Segurantzaren afiliatutako atzerritarren igoera

Igoera
43.624 (%44)



1998ko abenduaren 31
1999ko ekainaren 30
2000ko ekainaren 30

Igoera
126.698 (%96)



EBkoak ez direnak

6.

Unitate didaktikoaren ebaluazioa

Ondoren, ebaluatzeko bi proposamen aurkezten dizkizuegu. Lehenengoa ikasleentzako da eta irakasleen helburuaren arabera egokitu daiteke.

Gure ustez garrantzitsua da, ikasitako ezagutzak, prozedurak eta jarrerak ebaluatzeaz gain, ikasleek proposamen didaktikoaren balorazio bat egiteko aukera izatea.

Bestea irakasleentzako ebaluazioa da. Gure material didaktikoak egiten jarraitzeko, ezinbestekoa deritzogu hezitzaileen ebaluazioak edukitzea haiek hobetzen joan ahal izateko.

Beraz, bi ebaluazioak **Alboan**-era bidaltzea eskatzen dizuegu:

Aita Lojendio kalea, 2 - 2º • 48008 Bilbo

Bergamín kalea, 32 • 31004 Iruña

Ebaluazioak Interneteko gure orrian ere topa ditzakezue:

<http://www.alboan.org>

Gure posta elektronikoaren helbidetara ere bidal ditzakezue:

alboanbi@alboan.org • alboanna@alboan.org





6.1. Ikasleentzako ebaluazio-proposamena

Zein da egindako jardueri buruzko nire iritzia?

Unitate didaktiko honetan erabilitako jardueren, metodoen eta baliabideen baliotasuna egiaztatzeko, erantzun ondoko **galderei**. Ikasleak dira (material honetako protagonistak eta hartzaileak) hori ebaluatzeko pertsonarik egokienak. Gainera, galdera horietan behin eta berriz azpimarratzen da unitate osoan nagusitu den ideia: ikaslea ikasketa-prozesuan duen arduraz jabetu behar da

1. Eman 1etik 4ra arteko kalifikazioa honako jardueri				
	1	2	3	4
1. jarduera: Bidaia bat egitera goaz				
2. jarduera: Banakako inkesta				
3. jarduera: Egunkaria irakurtzen				
4. jarduera: Gertaerak eta iritziak				
5. jarduera: Istorioak kontatuko ditugu				
6. jarduera: Emakumea eta publizitatea				
7. jarduera: Prentsa-zuzentzaileak gara				
8. jarduera: Galderak				
9. jarduera: Iritzi-artikulu bat idazten				

1. Zein abantaila ikusten dituzu taldeka lan egitean?

2. Eta zein zailtasun edo alde txar?

3. Alderatu eskola horiek ohikoekin. Zein desberdintasun ikusten dituzu?
Zure ustez, horrela gehiago ikasten al da?

4. Beste zein gaitan gustatuko litzaizuke erabiltzea eskola emateko modu hori?

5. . Zure ustez ahoz adierazteko gaitasuna hobetu egin al da unitatearen hasieratik alderatuta?

- ez da hobetu
- hasieran bezalakoa da
- pixka bat hobetu da
- asko hobetu da

6. Zure ustez ideiak idatziz adierazteko gaitasuna hobetu egin al da unitatearen hasieratik alderatuta?

- ez da hobetu
- hasieran bezalakoa da
- pixka bat hobetu da
- asko hobetu da

7. Zer egin zaizu deigarrien prentsa-azterketatik? (Gogoan hartu honako jarduerak 'Egunkaria irakurtzen' (mapa eta geziak) eta 'Prentsa-zuzentzaileak gara')

8. Publizitateari dagokionez, zer egin zaizu deigarrien? (Gogoan hartu 'Emakumea eta publizitatea' jarduera).

9. Unitate honek lagundu al dizu immigrazioaren errealitatea beste modu batera ikusten? Zein alderdi?

10. Harritu egin al zaitu komunikabideetan emakumeak nola tratatzen diren ikusteak?
Eman arrazoiak.

.....

.....

.....

.....

11. Lehen baino gehiago jabetzen al zara pertsona desberdinenganako ditugun aurreiritziez?

.....

.....

.....

.....

12. Oro har, zer iruditu zaizu unitate didaktiko hau?

	Oso	Nahiko	Pixka bat	Gutxi	Bat ere ez
Interesgarria					
Originala					
Aspergarria					
Erabilgarria					
Zaila					

13. Zein gai iruditu zaizu interesgarriena? Eta zein gutxiena?


.....

.....

14. Gustatuko al litzaizuke beste gairen bat lantzea? Zein?

.....

.....



6.2. Irakasleentzako ebaluazio-proposamena

Irakasleentzako inkesta

Ikastetxearen izena

Izen-deiturak

Lan egiten duen hezkuntza-alorra eta -maila

Gauzatutako unitate didaktikoaren izenburua

Esperientzian parte hartutako ikasle-kopurua

Beste irakasleren batek parte hartu al du unitate didaktikoa gauzatzen?

a) Ebaluazio kuantitatiboa

Eman 1etik 4rako kalifikazioa ondoko kontuetan (kalifikazioa gutxienetik handienera: 1= ez edo gutxi baloratua / 4= bai edo asko baloratua).				
Kontuak	1	2	3	4
• Erabilitako materiala oso eraginkorra da ikasleen arteko elkartasuna bultzatzeko edukiak, jarrerak eta prozedurak sustatzeko				
• Materiala gauzatzea zaila egin zait				
• Ikasleen erantzuna positiboa izan da				
• Proposatutako jarduera gehienak gauzatu ditut				
• Materialeko edukiak nire ikasgaiaren programara egokitzea erraza izan da				
• Interesgarria da gai horiek curriculum-arloka lantzea				

b) Ebaluazio kualitatiboa

Alboan-en material didaktikoak zure Elkartasunerako hezkuntzari buruzko ikuspuntua aberastu al du? Zergatik?

.....

.....

Proposatutako zein jarduera gauzatu dituzu? Jardueraren bat prestatu al duzu materialetik abiatuta?

.....

.....

Zenbat baloratzen duzu material didaktikoaren egitura? Unitatearen osaera positiboa iruditzen al zaizu: irakasleentzako gida eta ikasleentzako gida?

.....

.....

Zailtasunen bat topatu al duzu? Zein? Nola konpondu duzu?

.....

.....

Balioetsi ikasleen erantzuna. Zerk harritu zaitu gehien?

Zein alderdi direla esango zenuke positiboak materialean eta esperientzia didaktikoan?

Zein alderdi sartuko zenituzke haiek hobetzeko?

Zure iritziz, zer behar da eskolan ikasleen artean elkartasunerako edukien, prozeduren eta jarreraren transmisioa gauzatzeko?

Zein esperientzia arrakastatsu edo kalitatezko material didaktiko ezagutzen dituzu arlo horretan?

Zure ustez, zer egin dezakete GKEek eskolan Elkartasunerako Hezkuntza sustatzeko?

Zure ustez, interesgarria al da **Alboan**-ek material-mota hau eskaintzen jarraitzea? Zergatik?

Interesgarria al deritzozu hainbat ikastetxetako irakasleak elkartzea beste ikastetxetan gauzatu diren esperientzia didaktikoak partekatzeko?



Bibliografía

- Alcover, N. y Simón, M.T. (1998). *La trama oculta de la gran prensa española*. Bartzelona: Cuadernos Cristianismo y Justicia 80 zk.
- Alonso, L. (2000). *Pensando en África: una excursión a los tópicos del continente*. Zaragoza: : Icaria argitaletxea. Colección Más madera.
- Arancibia, L., Bustamante, A. y Caballero, A. (1999). *Un problema de nuestros días: La esclavitud hoy*. Madril: Informazio-liburuxkak 6. zk.
- Centro Nuovo Modello di Sviluppo (1997). *Rebelión en la tienda*. Bartzelona: Icaria argitaletxea.
- Chomski, N. y Ramonet, R. (1997). *Cómo nos venden la moto*. . Bartzelona: Icaria argitaletxea. Colección Más madera 2. zk.
- Amani Taldea (1994). *Educación intercultural. Análisis y resolución de conflictos*. Madril: Popular S.A argit.
- Corzo Toral, J.L. (1992). *Leer periódicos en clase*. Madril: Papel de Prueba argitaletxea.
- Hegoa (1998). *Vidas paralelas de las mujeres*. Bilbo: Garapenerako hezkuntzako gida didaktikoa.
- Marks Greendield, P. (1985). *El niño y los medios de comunicación*. Madril: Morata argitaletxea. Bruner saila 16. zk.
- Medicus Mundi (1997). *Sur y Medios de Comunicación*. . Iruñan egindako biltzarra, 1997ko urriaren 30 eta 31.
- Moreno Lorite, C -SODePAZ. (1990). *¿Racismo en las imágenes?* Madril: Garapenerako hezkuntzako eskuliburuak.
- Quirón Proiektu Didaktikoa (1989). *Lectura de imágenes*. Madril: Ediciones de La Torre.
- Quirón Proiektu Didaktikoa (1995). *Teleniños públicos, teleniños privados*. Madril: Ediciones de la Torre.
- Quin, R. eta McMahon, B. (1997). *Historias y estereotipos*. Madril: Ediciones de la Torre. Quirón Proiektu Didaktikoa (1989).
- Sevillano, M.L. eta Bartolomé, D. (1996). *Enseñar y aprender con la prensa*. Madril: CCS argitaletxea.
- Schiller, H. (1996). *Aviso para navegantes*. Bartzelona: Icaria argitaletxea. Colección Más madera.
- Sevillano, M.L. eta Bartolomé, D. (1996). *Enseñar y aprender con la prensa: Fichas y modelos de trabajo*. Madril: CCS argitaletxea.
- Zenbait egile (1993). *Vamos a reírnos muy en serio del racismo*. Madril: Presencia Gitana argitaletxea.
- Zenbait egile (1994). *La aldea de Babel: medios de comunicación y relaciones Norte-Sur*. Bartzelona: Colección Intermón 3. zk.
- Zenbait egile (1999). *Europa se burla del racismo. Antología internacional del humos antiracista*. Madril: Presencia Gitana argitaletxea.

8.

Sareko beste zenbait baliabide

Hainbat gai lantzeko orduan, dokumentazioa osatzeko interesgarriak izan daitezkeen Interneteko orrien zerrenda bat ematen dizuegu. Gainera, hainbat bilatzailetan begira dezakezue:

www.google.com • www.yahoo.com • www.altavista.com

eta **Alboan**-en Interneteko orrian unitate honi buruzi informazio gehiago topa dezakezue:

www.alboan.org

I. Komunikabideak

http://www.ciberaula.es/quaderns/Hemeroteca/Educacion_y_Medios/eymIndice/eymindice.html

<http://www.us.es/pixelbit/sumarios.htm>

http://www2.uhu.es/comunicar/Revista/Addenda/busqueda_indices.htm

<http://www.ua-ambit.org/mediosde.htm>

<http://www.lopezdelemus.com/pedro/prensa1.htm>

II. Publizitatea

http://www.ciberaula.es/quaderns/Hemeroteca/Educacion_y_Medios/eymIndice/eymindice.html

<http://sedll.org/doc-es/publicaciones/resenyas/pub.html>

<http://www.google.com/search?q=cache:vnWkSDGgot4:www.edufam.net/escpad/temtrab38.htm+publicidad+manipulacion&hl=es>

<http://www.ciberaula.es/icce/pastoral/rpj/Junio/Publ3.htm>

<http://www.ctv.es/USERS/fjguillen/imaginando2/letraviva/loreal.html>

III. Immigrazioa

<http://www.reicaz.es/extranjeria>

<http://www.opi.upco.es/>

<http://personales.jet.es/ari-peru/Inmigracion/opinioninmigracion.html>

http://www.reicaz.es/extranjeria/revista/otras_revistas.htm

<http://www.inmigra.com/>

http://www.izquierda-unida.es/Publicaciones/PUEBLOS/Numero01/pueblos01_3.htm

<http://www.izquierda-unida.es/Publicaciones/InmigracionyAsilo/index.htm>

<http://www.eurosur.org/CIPIE/2tri99/prensa/c99t2a1.htm>

IV. Emakumeak eta Koedukazioa

<http://www.pangea.org/edualter/material/mujer>

<http://sauce.pntic.mec.es/~lromer3/Coeducaci%F3n.html>

<http://www.cfnavarra.es/INAM/GA231.HTM>

http://www.mcep.es/m_coeduc.htm

http://www.cprlorca.com/intranet/paz_coeduca/coeducacion.htm

<http://www.euskalnet.net/buenostratos/index.htm>

<http://www.ciberaula.es/quaderns/Hemeroteca/Signos/Signos16/s16coedu.html>

<http://www.vocesmujer.com/rpm.htm>

<http://enebro.pntic.mec.es/~psalaver/mujer/REVISTA.html>

<http://www.emakunde.es>

<http://www.nodo50.org/mujeresred/coeducacion.htm>

9.

Eranskinak



7 DE MAYO, DIA DE LA MADRE



7.990 ptas
48,02€
ASPIRADOR LG
7-2750
Potencia 1.300 w.
Capacidad de la bolsa
3,3 litros. Tubo de
plástico de 2
piezas.

*Hablando de regalos,
lo que más me gusta son esas cosas pequeñas
y esenciales que de verdad, de verdad necesitan.*



EL DIAMANTE DE EVA.

Un diamante sabe brillar. Tallado con el perfeccionista que dispersa la luz de una forma exquisita. Se formó hace unos mil millones de años (¡sí, así de antiguo!), con ganas del principio de los tiempos y por supuesto, mucho antes de la Creación. Si buscas un colgante de la Colección Inimitable de Diamantes, o saber dónde adquirir tus diamantes desde 100.000 pzas., llama al Tel. 902 20 90 20. Para elegir tu diamante a partir de 9,30 millones, así como algunos o tamaño real.

500 pzas. 1000 pzas. 1 millón

Un diamante es para siempre
De Beers

Colaboran:



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación Foral
de Bizkaia



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Departamento de Bienestar Social
Gizarte Ongizate Departamentua

Ediciones  Mensajero

Bilbao

C/ Sancho de Azpeitia, 2 bajo

Tel.: 94 447 03 58

Fax: 94 447 26 30

E-mail: mensajero@mensajero.com

48014 Bilbao

Internet

<http://www.mensajero.com>



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARRREN GARAPENERAKO FUNDATZIOA

Bilbao

C/ P. Lojendio, 2 - 2

Tel. - Fax: 94 415 35 92

E-mail: alboanbi@alboan.org

48008 Bilbao

Pamplona • Iruña

C/ Bergamín, 32

Tel. - Fax: 948 23 13 02

E-mail: alboanna@alboan.org

31004 Pamplona

Internet

<http://www.alboan.org>